



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

EKONOMIA
ETA ENPRESA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE ECONOMÍA
Y EMPRESA

EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA (DONOSTIAKO ATALA)

ZAINTZA SEKTOREKO LANGILEEN ERREALITATEA: MENPEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEN ZAINZAREN INGURUKO ANALISIA

EGILEA: JOSEBA MOKOROA GARMENDIA

TUTOREA: IRATI LABAIEN EGIGUREN

2020. URTEAN, ZARAUTZEN ETA DONOSTIAN

Aurkibidea:

0.	Sarrera.....	5
I.	<u>Kapitulua: testuingurua.....</u>	<u>7</u>
I.1.	Feminismoak ekonomiari egindako ekarpenak.....	7
I.1.1.	Ekonomia feministaren aurrekariak: marxismoa.....	7
I.1.2.	Pentsaera ekonomiko hegemonikoa: eskola neoklasikoa.....	8
I.1.3.	Azken bi mendeetako ekarpen feministak.....	9
I.2.	Genero arteko ezberdintasunak gizartean.....	12
I.2.1.	Ekoizpen lana eta ugalketa lana.....	12
I.2.2.	Emakumeen posizioa gizartean.....	12
I.2.3.	Lan merkatua genero ikuspegitik.....	15
I.2.4.	Zaintza lanen banaketa gizartean.....	15
I.3.	Zaintzaren definizioa.....	16
I.3.1.	Menpeotasuna: kontzeptua eta motak.....	18
I.3.2.	Mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko sistema ezberdinak.....	19
I.3.2.1.	Familiek hartzen dute euren gain.....	20
I.3.2.2.	Etkez-etxeke zaintza.....	20
I.3.2.3.	Etxe barneko langileak.....	20
I.3.2.4.	Erresidentzia sistema.....	20
I.3.2.5.	Eguneko eta gaueko zentroak.....	21
I.3.2.6.	Teleasistentzia	21
I.3.2.7.	Prebentzioa.....	21
I.4.	Zaintza lanen baldintzak.....	21
I.4.1.	Zaintza lanen krisia.....	22
I.4.2.	Lan ikusezinak azaleratzen	22
II.	<u>Kapitulua: EAE eta Gipuzkoako egoeraren analisia.....</u>	<u>26</u>
II.1.	Legedia.....	26
II.1.1.	Estatu mailako legedia.....	26
II.1.2.	EAEko legedia.....	27
II.1.3.	Gipuzkoako legedia.....	28

II.2.	Gobernuen plan estrategikoak.....	28
II.2.1.	EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. Plana....	28
II.2.2.	Jaurlaritzak aurreikusitako zerbitzu ezberdinak.....	30
II.2.2.1.	Etxez-etxeko laguntza zerbitzua (ELZ).....	30
II.2.2.2.	Zaintzaileei laguntzeko zerbitzuak.....	31
II.2.2.3.	Eguneko arreta zerbitzuak.....	31
II.2.2.4.	Adinekoentzako ostatu zerbitzuak.....	31
II.2.2.5.	Autonomia mugek eragindako premiei erantzuteko eguneko zerbitzua edo zentroa.....	32
II.2.2.6.	Autonomia-mugek eragindako premiei erantzuteko gaueko zentroak.....	32
II.2.2.7.	Adinekoentzat egoitza zentroak.....	32
II.2.2.8.	Atsedenerako zerbitzua.....	33
II.2.2.9.	Telelaguntza.....	33
II.2.2.10.	Prestazio ekonomikoak.....	33
II.2.2.11.	Beste zerbitzuak.....	34
II.2.3.	Gipuzkoako emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. foru plana.....	34
II.2.4.	Emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. foru plana.....	34
II.3.	Zaintza lanen egoera.....	35
II.3.1.	Egoeraren diagnostikoa EAEn.....	36
II.3.2.	Gipuzkoako egoeraren diagnostikoa.....	37
II.4.	Zaintza informala EAEn.....	40
II.4.1.	Zaintzaileen ezaugarriak.....	41
II.4.2.	Eraginak zaintzaileen ongizatean.....	41
II.5.	Ordaindutako zaintza lanak.....	42
II.5.1.	Lan merkatua.....	42
II.5.1.1.	Etxetako Barne eta kanpo langileak.....	47
II.5.1.2.	Erresidentziak.....	48
III.	<u>Ondorioak.....</u>	<u>52</u>
IV.	<u>Bibliografia.....</u>	<u>55</u>
V.	<u>Gehigarriak</u>	
V.1.	Eranskina.....	58

Taulen aurkibidea:

1. Taula: Soldaten konparaketa sexuen artea.....	37
2. Taula: Etxeko langileek egindako lan orduak eta jasotako soldatak batuz beste EAEn.....	47
3. Taula: Barne langileen banaketa astean egindako lan orduen arabera.....	48
4. Taula: Barne langileen atsedenaldiak.....	48

Grafikoen aurkibidea:

1. Grafikoa: Zaintza behar duten biztanleriaren banaketa EAEn	36
2. Grafikoa: Sektore arteko soldaten konparaketa – Eurotan (2015).....	39
3. Grafikoa: Etxeko enplegatu landunak (BAI) eta pertsona afiliatuak (Gizarte Segurantzza).....	43
4. Grafikoa: Etxeko enpleguaren izozmendia: etxeen ikuspegia.....	44
5. Grafikoa: Etxeko enpleguaren izozmendia: langileen ikuspegia.....	45

0. Sarrera

0.1. Testuingurua

Zaintzaren gaia, aktualitateko gaia da gaur egun, izan ere, azken urteetatik hona sektore honetako langileek eta zenbait erakunde eta elkartek lan izugarria egin dute honen inguruko problematika azaleratzeko eta dauden arazoei irtenbide bat emateko. Gizartean, eztabaidan dagoen gai bat da zaintza lanen ingurukoa, zenbait eragilek lan esanguratsua egin dutelako hau mahai gainean jartzeko, gainera, COVID19aren krisiak agerian utzi du zaintza lanen sektorean gabeziak daudela, besteak beste, erresidentzia askotan ezin izan delako kontrolatu birusaren hedakuntza, baliabide falta medio, bai egoiliarak artatzeko eta baita langileen lan baldintza eta segurtasuna bermatzeko ere. Gaiaren gaurkotasuna ikusita eta honen inguruan datuak biltzeko eta eskuragarri izateko zailtasunak ikusita, batez ere euskaraz, lan honekin lan hauek azaleratzeko eta ikusgarri bihurtzeko hondar aletxoak jarri nahi da.

Zaintzak, izan ere, behar beharrezkoak dira gizaki guztion bizitzan zehar, hau aurrera eramanez izateko. Haurtzaroen, gaixoardietan edo zahartzaroen behar ditugu, besteak beste, zaintzak, hau da, pertsona guztiek behar dituzte zaintzak, modu batean ala bestean euren bizitzan zehar. Beraz, guztion bizitzaren parte izanagatik zaintzak, ez zaie benetan daukaten balioa ematen, kolektibo zaurgarrienen esku utziz kasu askotan lan hauek, baldintza oso xumeetan.

Nahiz eta arlo teorikoan lanketa zabala egon, benetako egoera aztertzea ez da batere erraza, jarraian ikusi dugun bezala, zaintzaren inguruko eta zaintzaileen inguruko errealitatearen doitzen diren datu fidagarriak lortzea ez delako batere erraza, hau ikusita, jarraian zehaztutako helburuetan ikusiko dugun bezala, sektorea ulertzen eta errealitatea deskribatzen saiatuko gara lan ikusezinak azaleratzeko ekarpen bat egin nahian.

0.2. Helburuak

Lehenengo helburu nagusia, lehenengo kapituluaren landua, emakumeen lanak orokorrean, eta zaintza lanek zehazki, egin duten bilakaera historikoa eta egoera garaikidea aztertzea izango da. Helburu hau lantzeko lau azpi-helburu zehaztu dira, hauek lehena, historikoki pentsamolde ezberdinek eduki duten ikuspuntua eta hauen bilakaera aztertzea izango da. Bigarrena, generoen artean lanak nola banatu diren eta roletan izan duten garrantzia aztertzea izango da. Hirugarren azpi-helburua, zaintzaz hitz egiten dugunean, zertaz hitz egiten dugun aztertzea izango da, hau definituz, eta mendekotasun mota ezberdinak aztertuz. Eta azkenik, zaintza lanek gure gizartean daukaten posizioa aztertuko da.

Bigarren helburu nagusia, berriz, bigarren kapituluaren landua, EAE eta Gipuzkoa mailan mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeko egindako lanek duten egoera aztertzea izango da. Horretarako, beste hiru azpi-helburu zehaztu dira, lehenik, gobernu ezberdinek dituzten legediak eta plan estrategikoak aztertuko dira, zaintzen inguruan dauden arau eta baliabide ezberdinak ikusteko, menpekotasuna daukaten pertsonak artatzeko eta hauen zaintzaileentzako dauden baliabideak aztertuz. Bigarrenik, zaintza lanen egoeraren diagnostiko bat egingo da lurralde mailan. Eta azkenik, zaintzaile mota ezberdinak finkatu eta hauetako bakoitzak dituen egoera eta ezaugarriak aztertuko dira.

0.3. Metodologia

Metodologiari dagokionez, iturri oso ezberdinetatik jasotako informazioarekin osatu dugu lana, alor historikoari lotutako atala jorrazteko batez ere iturri bibliografikoak erabili dira, liburu eta artikulua ezberdinetan egindako argitalpenak eta leku ezberdinetan egindako ikerketen inguruko txostenak, batez ere, baita erakunde ezberdinek egindako argitalpenak ere. Gaur egungo egoera azaltzeko berriz, lehenik iturri ofizialak jorratu dira, alde batetik legediak eta bestetik erakunde ofizialen plangintzak, baita ikerketa ezberdinak, estatistikako erakunde ofizialen datu baseak eta gaiaren inguruko liburu, artikulua eta ikerketak ere, besteak beste. Azkenik, datuak osatzeko eta lana borobiltzeko asmoarekin, eta zenbait sektoretako datuak biltzeko zailtasunak ikusita, batez ere erresidentzietako langileen lan baldintzak aztertuz, elkarrizketa pertsonalaren tresna erabili da. Informazioa biltzerakoan, ikuspuntu ezberdinetako autoreen lanak kontsultatzea izan da asmoa, bai maila nazionalako eta bai internazionalako pentsalari historiko eta garaikideen ikuspuntuak aztertuz, nahiz eta, lan gehiena pentsalari feministen aldetik dagoena izan, izan ere, pentsamolde jakin batzuek ez dute ia aipamenik ere egiten gaiaren inguruan eta horregatik zaila da hauen pentsamendua aztertzea. Datuak biltzerako orduan berriz, zailtasun esanguratsuak daude, sektorearen berezitasunengatik, eta nahiz eta bibliografia gero eta gehiago dagoen, azterketa sakon bat egiterako orduan datuak gutxi eta nahasiak dira, izan ere, erakunde ezberdinek emandako datuak zenbait kasutan kontrajarriak dira bata bestearekiko. Zailtasun hau ikusita iturri ezberdinak kontsultatu dira eta datuak elkarrekin alderatu, argazki ahalik eta objektiboena egin ahal izateko. Iturri gehienak euskaraz eta gaztelaniaz kontsultatu dira, eta neurri txikiago batean ingelesez.

0.4 Lanaren egitura

Lanak, bi helburu nagusi dituenaz, bi kapituluaren banatzea erabaki da, hauen baitan dauden azpi-helburuak azpi-atal batean edo gehiagotan zatituz, helburu bakoitzaren ezaugarrien arabera.

I. Kapituluua: Testuingurua

I.1. Feminismoak ekonomiari egindako ekarpenak

Ekonomia feministak bide luzea egin du XIX. mende erdialdetik gaur egunean dagoen lekura iritsi arte. Emakume askoren lana eta esfortzuari esker pixkanaka bidea urratuz goazen arren oraindik asko falta da gizarte parekide batera iristeko. Nahiz eta zentzu honetan mugimendu feministak aurrerapauso nabarmenak eman alor teorikoan, batez ere azken hamarkadetan, ez du lortu pentsamendu ekonomiko desberdinetan eragina izaterik eta hauek bakoitzak bere bidea egin dute pentsalari feministen iturritik edan gabe.

Zaintzak aztertzeraz sartu aurretik, lan merkatuaren funtzionamendu historikoa aztertuko dugu genero ikuspuntutik, horrela, lanen banaketa generoen artean eta zaintza lanek izan duten eta eman zaien balio historikoa aztertuz, gaur egungo egoera aztertzeraz pasatzen garenerako, zaintza lanen merkatuaren, eta lan merkatu orokorraren, nondik norakoak ulertzeko. Horretarako, historian zehar pentsalari garrantzitsu ezberdinen teoria ekonomikoetan emakumeek, eta hauen lanak, izan duten papera aztertuko dugu.

I.1.1. EKONOMIA FEMINISTAREN AURREKARIAK: MARXISMOA

Karl Marx eta Friederich Engels (1948) izango dira lehenengotarikoak beraien manifestu komunistan emakumeek egiten duten lanari aipamenak egiten. Hauek, etxeko lanek duten balioa onartu ez ezik, kapitalaren produkzioan duten pisua onartzen dute, hau da, familiak bere zentzu tradizionalen beharrezkoak direla bai produkzioarako eta baita klase borrokarako ere.

Marxen aburuz, emakumeek aske izan nahi badute beharrezkoa izango dute lan munduan murgiltzea, eta lan munduan txertatu arren emakumeak ez dituzte gizonen maila beran jarriko eta bigarren mailako lan indar bezala kalifikatuko dituzte. Honek agerian jartzen du emakumeen posizio ahula gizartean (Castaño, 1999). Bigarren mailako langiletzat kalifikatzean (eta bigarren mailako lanetara mugatuz), soldata baxuagoak eta baldintza kaxkarragoak pairatzen dituzte emakumeek horrela gizonenganako duten dependentzia ekonomikoa betiketuz. Emakumeak erreserbako lan saldo bezala, lan askoko garaietan lagundu dezakete gizonetakoak bete ezin dezaketen lanak egiten, beti ere maila baxuenekoak eta ordainsari kaskarrekin. Eta lan gutxiagoko garaietan, ez direnez ezinbestekoak, kaleratuz. Deigarria da, merkatu legeen arabera atzeraldietan enpresek nahiago izango zuketela emakumeak mantentzea lanean, kostu baxuagoa dutelako baina hau ez da horrela ematen. Gainera, zenbait lan (garbiketa, zaintza...) emakumeek monopolizatzen dituzte eta esku lan hau mantentzea beharrezkoa da gizartearentzat (Marx & Engels, 1948).

Aipatzekoa da baita ere nahiz eta Marx feminismoaren aurrekaria izan XX. mendean, ikuspegi ezberdina dutela feministek honekiko, batez ere familia barruko emakumeen esplotazioan. Feministek familia barruko esplotazioa

beharrezkoa dela esaten dute gero kapitalak esplotatzeko, hau da, etxe barruko esplotaziorik gabe ezinezko zaio kapitalari langileak esplotatzea (Castaño, 1999) (Benería & Roldán, 1987). Bestalde, marxistek naiz eta esplotazio hau onartzen duten eta honen jatorrian bat datozen, ez dute zuzenean lotzen kapitalak langileen gain duen eraginarekin.

I.1.2. PENTSAERA EKONOMIKO HEGEMONIKOA: ESKOLA NEOKLASIKOA

Ezaguna den bezala XX. mendean eskola neoklasikoak hartzen du indarra mundu osoan eta pentsamendu klasikotik pentsamendu neoklasikora egiten da jauzia, horrela gauzek duten balioa merkatu arauetara mugatzen duen sistema bat hedatzen da eta ondasunek eta zerbitzuek, trukean ematen duten utilitatearen balioa jasotzen dute.

Testuinguru honetan, gizonen lana bi esparrutan banatzen da, batetik ordainpeko lana eta bestetik aisialdia (Anzorena, 2009). Irakurketa honek ordainpeko lan hori egiteko beharrezko zaintza eta etxeko-lan guztiei balioa kentzen die eta ondorioz emakumeek egindako lana ikusezina bilakatzen da (Anzorena, 2009). Hori gutxi balitz, autore neoklasikoek generoen arteko desberdintasun biologikoak argudiatuz, emakumeek gizartean duten lekua esplikatuz eta justifikatuz dute.

Gary Becker izango da lehenengotariko autore neoklasikoa emakumeen lanaz hitz egiten 1987an argitaratutako “familiararen tratatua” liburuan. Hemen, aurrerapauso bat emanez, lan merkatutik kanpo dauden lanen garrantziaz hitz egingo badu ere etxeko lanen garrantzia aitortuz, bere analisisa familiararen barnean dauden rol desberdinak aztertzeraz eta bakoitzak bete beharreko funtzioak zein diren azaltzeraz mugatuz, agerian utziz pentsaera neoklasikoaren eta feministaren arteko bateraezintasuna (Carrasco, 2006). Zaintzak ekonomian duen garrantzia aitortzen duen lehenengotariko autorea izanagatik, ikuspegi heteropatriarkaletik egingo du bere lana, gizonen denbora lan produktiboaren (soldatapekoaren) eta aisialdiaren artean banatuz, ordaindu gabeko lanari tokirik utzi gabe (Anzorena, 2009). Honela, familiarako kideen artean rol desberdinak banatuz dituzte Beckerrek lehen aipatutako arrazoi biologikoak argudiatuz, zaintza eta etxeko lanak emakumeen gain utziz eta eskema honetatik ateratzen den familiarak ez direla efizienteak izango esango du.

Ugalketa lanari ere erreparatzen dio Beckerrek bere lanean, seme-alabak kontsumo ondasun gisa ikusten dituzte berak (Anzorena, 2009). Seme-alaba hauen kantitatea, emakumeek hauek heztera bideratu dezaketen denborarekin zuzenean lotuz eta ildo horretatik, kantitate eta kalitateari buruz hitz egingo du; zenbat eta seme-alaba gutxiago, orduan eta kalitate hobea izango dute eta alderantziz. Noski, familiararen baliabideek zer ikusi nabarmena izango dute, beraz, seme-alaba kopurua erabakitzerakoan, zenbat eta klase sozial altuagoa, gizonaren soldata hobea izango da eta ondorioz emakumeak denbora gehiago eskaini dezake seme-alaben zaintzara.

Azkenik, esan beharra dago bide uzten duela zenbait kasutan emakumeek parte hartzeko lan munduan, beti ere gizonen soldata nahikoa ez den kasuetan, hau da, gizartean maila baxuena duen taldeetan, eta beti gizonaren soldataren gehigarri gisa ulertuta (Becker, 1987; Anzorena, 2009). Soldata arrakala esplikatzen, emakumeei lan gutxiago suposatzen diela kanpoan lan egiteak argudiatzen du nahiz eta emakume hauek etxetik kanpoan lan egiteaz gain beraien familia barneko rola betetzen jarraitu behar duten, honek suposatzen duen lan kargarekin.

I.1.3. AZKEN BI MENDEETAKO EKARPEN FEMINISTAK.

Ukaezina da garai honetan pentsaera feministak emandako urratsak oso garrantzitsuak izan direla zentzu askotan, alor sozial eta politikoan zenbait lorpen garrantzitsu egin dira eta denboran zehar hauek kontsolidatu, ala nola, boto eskubidea, burujabetza, erabaki askatasuna... hala ere ez da berdina gertatzen alor ekonomikoan (Carrasco, 2006). Castañoren (1999) ustez, nahiz eta ekonomialari feministek maila teorikoan aurrerapausoak eman, hauek ez dira benetan gizartean islatu. Nolabait ekonomialari feministek eta ekonomia neoklasikoak egingo duten bideak gurutzatu gabe, arrazoi desberdinegatik emakumea lan munduan masiboki sartzearen ondorioz hasiko dira ekonomialariak emakumeen lanari buruz hitz egiten (Castaño, 1999), eta beraien analisia etxeko lan eta merkatu lanen arteko oreka eta denbora banaketa aztertzeraz mugatuko da.

Pentsaera neoklasikoak, merkantilismoa hartzen du lan-erlazio guztien oinarritzat eta gizarte osoa gizonaren ikuspegitik antolatuko du (Carrasco, 2006). Honela, etxeko lanak, trukean jasotako utilitatearen arabera baloratuko dira, kontuan hartu gabe familiaren ongizatean etxeko-lan hauek duten balio gehigarria, izan ere beharrezkoak dira lan hauek gizonak lanera joan ahal izateko soldata irabaztera.

Industrializazioa iristearekin batera, eta honekin teknologia eta bizi molde berriak, etxeko kontsumitzeko ohiturak aldatuko dira. Etxeko kontsumo beharrak asetzeko zenbait ondasun etxean ekoiztetik kanpoan eskuratzera pasako dira familiak eta hau mugarri izango da etxeko eta aurrerago sakonago aztertuko dugun zaintza lanen antolaketan (Castaño, 1999). Izan ere, zenbait teknologia gizartean txertatzearekin batera, ezin izango dira zenbait kontsumo elementu etxean bertan produzitu, hala nola, elektrizitatea edo medikuntza eta botikak. Horrela bide berri bat irekiko da etxeko kontsumorako ondasun eta zerbitzuak kanpoan eskuratzeko eta pixkanaka oinarritzko elementuak ez ezik bestelakoak ere eskuratzen hasiko dira familiak, emakumeentzat aukera kostua sortuz, etxeko lanak egiteko denbora hartzearen eta lanera joatearen artean (Carrasco, 2006). Honek bi eragin zuzen izango ditu familia ekonomietan, alde batetik, ondasun eta zerbitzu hauek (etxean ekoiztu daitezkeenak eta aldi berean kanpoan eskuratu daitezkeenak), bertan ekoiztu ala kanpotik eskuratu erabaki beharko dute, nahiz eta aurreko atalean ikusi dugun testuinguruan, familia eredu garriek bertan produzitzea hobetsiko duten, zenbait gauza praktikotasunagatik, ekonomiagatik edo etxea ezin

delako ekoiztu (elektrizitatea kasu). Eta bestetik, etxe barruan ekoiztutako ondasun hauen balorazio ekonomikoa oso zaila izango da (Castaño, 1999), ez dagoelako balio hau neurtzeko modu objektiborik eta ondorioz analisi hau errealitatera doitzen oso zaila da. Esku lanaren kasuan, orohar, inbertitutako ordu kopurua hartu izan da kontuan eta ordu horiek balio lezaketena kanpotik etorri beharko balira lan egitera. Aipatu beharra dago, analisi hau ez dela oso zuzena, alde batetik etxeko kide batek egindako lana ezin delako kanpoko batek egiten duen lanarekin alderatu, familiako kide baten lana ez delako ordezkagarria honek afektibitateagatik ematen dion balio gehigarriagatik, eta etxeko kide batek lan hauek burutzean dituen lanaldi baldintza bereziengatik, tartekatutako orduak, desplazamendu eza, lan ordu gehigarriak... alegia, kanpoko kide batek egin beharko balu lan hori eta baldintza horiek berdin mantenduz gero familiak ezin izango luke bere gain hartu kostu hori. Kontsumo ondasunekin antzeko zerbait gertatzen da, etxe barruan ekoiztutakoak ze balio duten aztertzeko ordezkagarriekin alderatzen dira, hau da, kanpoan eskuratu behar izanez gero ze kostu edukiko luketen begiratzeko joera dago, nahiz eta hemen ere oso zaila izan ordezkagarriak eta etxean produzitutakoak konparatzea, adibidez, ez dira berdinak, eta ondorioz ez dute balio bera, etxean ekoiztutako galtzerdi pare batek eta kalean eskuratutako pare batek, ez direlako berdinak egiteko teknika, material, etab.

Industrializazioa iritsi ahala, gizarteak aldaketa sakonak pairatuko ditu, alde batetik kontsumo ereduak aldatuko da, etxe barruan kontsumitu beharrekoak bertan bere osotasunean ekoiztu ahal ez izateak, kanpotik eskuratzeko beharra ekarriko du eta horrela zerbitzu eta kontsumo ondasun ugariren produkzioari bide emango zaio. Kontsumo ohiturak beraz aldatzen joango dira eta honekin batera bizitzeko ohiturak. Higienean emango diren aurrerapausoak ere esanguratsuak dira. Honen garrantziaren kontzientzia hartuko du gizarteak, eta honek lan karga gehigarria ekarriko die familiei, eta ondorioz emakumeei (Carrasco et. al., 2011).

Laburbilduz, oso zaila da etxean egindako lanen balorazio ekonomikoa egitea, baina prozesu hau behar beharrezkoa izango da jarraian aztertuko duguna ulertzeko, emakumea lan munduan sartzeko pausua ematerako garaian, erabaki hau hartzeko lotura zuzena daukalako etxean egindako lana aztertu eta kanpoan egingo lukeenarekin alderatzea (Castaño, 1999). Hau da, kanpoan lortutako soldatak ahalbidetuko ahal du emakumea etxean lan gutxiago egitera. Jarraian aztertuko dugun bezala oso zaila izango da estrapolazio hau egitea.

Kontsumo ereduak aldatzeaz gain, garai honetan aldaketa sakonak eman ziren familia antolaketan ere. Industrializazioaren aurretik familia eredu aniztasun handiagoa egongo da eta familia bakoitzaren barnean desberdin banatuko dira lanak, nahiz eta emakumeek bigarren mailako leku bat izango duten eta zenbait betebeharrak monopolizatuko dituzten, ohitura eta erlijio arrazoiak medio, zaintza lanak ez dira izango emakumeen lan eskusiboak eta gizonek ere parte hartuko dute zenbait lanetan, zenbait jakien prestaketan, hauen kontserbazioan edo seme-alaben zaintzan emakumeek azokara joan behar izaten zuten kasuetan,

esaterako. Deigarria da nola lanen banaketa familia barnean modu bertikalean transmititzen den, hau da, aitetatik semeetara eta ametatik alabetara (www.ahotsak.com).

Zaintzaren arloan ere aldaketa sakona emango da, gizonak dirua irabazteko papera hartuko dute, etxeko nukleoan beste lan kargarik hartu gabe, horrela emakumea ekonomikoki mendeko bihurtuz. (Carrasco, Borderías, & Torns, 2011) Hau da, gizonak soldata irabaztera mugatuko dira eta emakumeak hartu beharko ditu bere gain, beraz, familia zaintzeko lan guztiak. Aurrerago aztertuko dugun bezala, dependentzia bikoitza sortzen da hemen, emakumea ekonomikoki mendekoa bihurtuko da gizonarekiko eta gizonak behar beharrezko izango du emakumea eta honek egindako lan guztia lan produktiboaz arduratu ahal izateko.

Azken hamarkadei begiratzen badiegu, ekonomia feminista inoiz baino hedatuago eta indartsuago zegoela esan dezakegu (Carrasco, 2006), genero ikuspegiaren kontzientzia hedatzen doa gizartean eta hor paper erabakigarria jokatu dute IAFFE (International Association For Feminist Economics), bere urteroko konferentziek, eta baita Feminist Economics aldizkariak ere. Orokorrean, Marxismoa ekonomia feministaren aurrekarizat jo arren diskurtsoa gogortu egin zen langile borroka aldarrikatzean eta gizonen interesak bakarrik hartzea kontuan leporatuko zaio besteak beste. Hala ere, ekonomia feministaren ezaugarrietako bat izango da askotariko pentsaera duten pertsonen osatuko dutela eta nahiz eta gauza askotan bat etorri, batez ere funtsezko gauezan, hau aurrera nola eraman ikusterako orduan korrante ezberdinak sortu ziren (Pérez Orozco, 2005). Orokorrean ekonomia feministak, ekonomia gizonaren ikuspuntutik eta hauen interesak betetzeko egina dagoela azpimarratuko du eta ekonomiaren definizioa zabaldu eta merkatutik at zabaldu behar dela aldarrikatuko dute, emakumea agente aktibotzat berreskuratuz. Bi korrante nagusi sortuko dira hau gauzatzeko ideia ezberdinekin. Alde batetik, kontziliazio ekonomia feminista daukagu, mugimendu honek, merkatu logika mantenduz eta ekonomia eta lana birdefinituz lan ikusezina azaleratu, balioztatu eta neurtu nahi du, baina orain arteko merkatu moldeak mantenduz. Hausturaren aldeko ekonomialari feministek berriz, sistemari buelta ematen diote, beraien aburuz lana neoliberalismoak definitzen duen bezala ez delako baliagarria kontzeptu bezala eta hau definitzearen eta etxeko lanen merkantilizazioaren zailtasunak ikusita beharrak erdigunean jarri eta bizitzaren jasangarritasunean oinarritu nahiko dute sistema ekonomikoa (Pérez Orozco, 2006).

Testuinguru honetan, feminismoaren aldarri nagusia giza bizitzak erdigunean jartzea bilakatu da (Carrasco, 2006) eta giza bizitzak dituen behar ezberdinen deskribapena eta hauen ezaugarriak aztertu ditu. Bi kategoriatan banatuko dira etxe barruan sortzen diren beharrak, alde batetik, behar biologiko eta sozialak, hauek kanpoan eskuratutako ondasun eta zerbitzuengatik ordezkatu daitezkeenak dira, eta bestalde, behar emozional eta afektiboak, diruagatik trukatu ezin direnak.

I.2. Genero arteko ezberdintasunak gizartean

Behin testuinguru historikoa eta pentsalari feministek ekonomiari egindako ekarpenak aztertuta, gizartean eta lan munduan lanak banatzeko moduak aztertuko ditugu. Beraz, atal honetan, nola lan ordainduak hala ordaindugabeko lanak nola banatzen diren ikusiko dugu lehenik, eta rol banaketak emakumeari ze leku utzi dion gizartean eta zaintza lanen karga nola banatzen den aztertuko dugu gero.

I.2.1. EKOIZPEN LANA ETA UGALKETA LANA

Etxeetako bestelako lanak ez ezik ugalketa lana ere emakumeen bizitzaren ardatzetako bat izan da urte hauetan. Izan ere, amatasuna, eta hau bizitzeko moduak, funtsezkoak dira emakume baten bizitza antolatzeke orduan (Oxfam, 2020). Amatasunak baldintzatu egingo du emakumeen karrera profesionalaren jarraikortasuna, eta ikusita seme-alabak hazteko eta hezteko lana ia eskusiboki emakumeek egingo dutela seme-alaba kopurua erabakigarria izango da emakumeek etxetik kanpo lan egiteko duten denbora ezartzerako orduan. Beraz, emakume askoren ardatza izango da ugalketa lana, beharrezko dena gizartearen mantenurako, eta hau muga garrantzitsua izango da emakumeentzat lan munduan sartzeko. Pentsalari feministen aldarri nagusietako bat bihurtuko da hau eta XIX. mende erdialdean soldata eskatzen hasiko dira ama izango diren emakumeentzat nahiz eta gero indarra galtzen joango den mugimendu hau. Honekin batera abortua ere mahai gainean jarriko dute eztabaidagai, gaur eguneraino iritsi den eztabaida hain zuzen, izan ere gaur egun oraindik abortu eskubideari buruzko eztabaida mahai gainean dago. Ugalketa lana deitutako ordaindu gabeko lan hauek ez dira estatistiketan sartuko eta nahiz eta azken urteetan esfortzu handia egin den mota honetako datuak biltzeko duela gutxira arte guztiz ikusezinak ziren zati handi batean emakumeek egindako lan hauek (Benería, 2006).

I.2.2. EMAKUMEEN POSIZIOA GIZARTEAN

Zaintza lanen egoera ikusteko, beharrezkoa da emakumeek gizartean duten posizioa aztertzea. Izan ere, aurrerago aztertuko dugun bezala, hauek hartzen dute beraien gain etxeko eta zaintza lanen pisu esanguratsuen. Oxfam-ek 2020an atera duen txostenaren arabera, azken urteetako bilakaera ikusiz aberatsak gero eta aberatsago dira eta pobreak gero eta pobreak, gizarteko maila ezberdinen artean dagoen arrakala gero eta handiagoa bihurtuz. Egoera honetan, gainera, deigarria da aberatsenen artean gehiengoa gizonezkoak direla eta pobrezia arriskua dutenen artean berriz, gehiengoa emakumeak. Gaur egun esaterako, munduko 22 gizonezko aberatsenen artean Afrikako emakume guztien aberastasuna baino gehiago pilatzen dute eta batz bestek gizonek emakumeek baino %50 aberastasun gehiago dute. Gizartearen %50a egunean 5,5\$ baino gutxiagorekin bizi da munduan, pobrezia arriskua gero eta hurbilago edukiz eta noski emakumeak beti arrisku larriagoa daukate. Gainera, gaur egungo sistema ekonomikoa zuzenki aprobeztatzen da desberdintasun honetaz etekina ateratzeko eta langileen soldataren igoera oso xumea den

bitartean (%3 G7an 2011 eta 2017 artean), aberatsen kapitalak lanik egin gabe sortzen duten kapitala hamar aldiz errentagarriagoa da (%31eko errentagarritasuna epe berdinean) (Oxfam, 2020).

Gainera, gizartearen egungo joera mantenduko balitz, hurrengo urteetan egoera okerrera joango dela espero da, izan ere, 2030. urterako 100 milioi haur eta 100 milioi heldu gehiago egotea espero da mundu osoan (OIT, 2018). Alde batetik, gizartearen gaur egungo joera ikusiz zahartzaroan dauden pertsonak ugaritzearekin batera hauek dituzten zaintza beharrak areagotuko dira, hau da, jende gehiago zaintzeko, zaintzaile gehiagoren beharra. Baina hau ez da egoeran eragingo duen faktore bakarra, klima aldaketak eta bere ondorioek, eta batez ere lehortekak, zuzenki eragingo die mundu osoko emakumeei, ura lortzeko egunero egin beharreko bidea luzatuz besteak beste. Ezin dira utzi aipatu gabe, faktore fisikoez gain, faktore politikoak, azken urteetako joera ikusten badugu zerbitzu publikoak nola pribatizatu eta murriztu diren ikus dezakegu, honek eragin zuzena izanik mundu osoko emakumeen bizi baldintzetan (Oxfam, 2020).

Egoera honetan aipatzekoa da, familia zaurgarrienetako emakumeen egoera are eta zaurgarriagoa dela. Alde batetik lan karga guztia beren gain hartu behar dutelako ezinbestean, baliabiderik ez dutelako kanpotik lana kontratatzeko, eta baliabide falta horrek aldi berean esku lana zailtzen duelako, etxetresna elektriko eta antzekoak ezin dituztelako eskuratu, ur hartuneak ez dituztelako eskura etab. Aipatzekoa da baita ere ama bakarren egoera, zenbait kasutan latza, lan karga guztiak beren gain izateaz gain ezin dutelako kasu askotan soldata duin bat irabazi (Oxfam, 2020).

Azken hamarkadan pairatu dugun krisiak eta horrek ekarri zuen 2012ko lan erreformak ere langileen prekarietatean eragin nabarmena izan du, azken hamarkadetako neoliberalen estrategia jarraiki, gizartearen ongizatea bermatzen duten zerbitzuak kolokan jarri ditu honek eta langileen lan baldintzak txarrera jo dute, langile pobreen fenomenoak (lana edukiagatik beraien soldatarekin ezin dute bermatu bizitza duina) areagotuz (OIT, 2018).

Desberdintasun hauek, emakumeak pobrezia egoeran uzten ditu zentzu ezberdinetan, hasteko, pobrezia ekonomikoa pairatzen dute emakume askok, munduan emakumeen pobrezia tasa bizi produktiboan zehar (25-34 urte) %22an (Oxfam, 2020) dago eta estatuan emakumeen artean pobrezia tasa %23an (INE 2017) finkatzen da bizitza produktiboan dauden emakumeen artean (16-64 urte). Datu hau ulertzeko gizartean rolak nola banatzen diren aztertzea beharrezkoa da, emakumeek, beren bizitzako urterik produktiboan (zentzu zabalean, hau da, bai lan merkatuan murgiltzeko eta baita umeak hezteko edo zaintza lanetan aritzeko), orohar, ugalketa lanera zuzendu behar dituztelako. Emakumeak txiki txikitatik bideratuta daude horretara, umetatik etxeko lanetan karga gehiago izateak ikasketetara denbora gutxiago bideratzea dakarrelako. Gainera, lan merkatuak guraso diren aitzak saritu eta hauen soldatak igotzen dituzten bezala, emakumeak zigortzen ditu eta hauen soldatek behera egiten dute, besteak beste,

kontziliazio arazoengatik ordu gutxiago bideratu ahal dituztelako lan merkatura, honek beste arazo gehigarri bat ere badu, zahartzaroan, lan bizitza murriztua izan duten emakumeek, pentsio murriztuak izaten jarraituko dute. Pobrezia ekonomikoaz gain, denbora pobrezia ere pairatuko dute emakumeek. Izan ere, etxeko lanen karga zenbait kasutan gizonek lanean egin behar dutena baino handiagoa izango da eta beste kasu batzuetan, etxeko lanak ez ezik lan ordaindua ere egin beharko dute emakumeek, zenbait kasutan aisialdirako edo atsedeen hartzeko denborarik utzi gabe (Oxfam, 2020).

NBEak postu publikoetako proportzioari ere erreparatzen dio genero berdintasunaren adierazletzat (NBE, 2018). Mundu mailan, parlamentarien %24 eta ministroen %18 dira emakumeak (Oxfam, 2020), hau, adierazle garbia da munduko botere oreka banaketan emakumeen pisua ikusteko. Adierazle hauek gurera ekartzen baditugu datuak bestelakoak dira, EAEn 2016an osatutako legebiltzarrean gehiengoa emakumezkoa da eta, hain zuzen %56a (EUSTAT). Eta Jaurilaritza osatzen duten 11 sailburuetatik 7 dira emakumeak eta 5 gizonezkoak. Ala ere, gehiengo hau ez da eman duela urte gutxi arte, izan ere legegintzaldi hasieran oraindik ere gizonezkoak ziren gehiengoa, eta egoera hau ematen den lehen aldia da. Hain zuzen, EUSTATen arabera, genero berdintasun indizea 2012. urtean botere politikoari dagokionez %90ekoa zen, botere ekonomikoari dagokiona ez bezala, %34ean geldituz. Ikerketa berdinen arabera, indize baxuena duen esparrua denborarena da %39,2an geldituz, indize hau berdintasun totala balitz %100ekoa litzateke, beraz zenbat eta baxuagoa ezberdintasun handiagoa bi sexuen arteko orekan.

Berdintasunerako bidean, NBEak garapen jasangarrirako esparru ezberdinetako 17 helburuen baitan genero berdintasuna 5. helburutzat hartzen du, dokumentu honetan, genero berdintasuna oinarritzko eskubidea ez ezik mundu bakezale eta jasangarria lortzeko oinarritzat jotzen du. Horrela, bederatzi meta ezartzen dituzte berdintasunerako bidean urratsak emateko. Lehenengoa, mundu osoko emakume eta nesken aurkako diskriminazioari amaiera jartzea, bigarrena, emakume eta nesken aurkako mota guztietako indarkeriarekin amaitzea, alor publiko nahiz pribatuan, hirugarrena, emakumeek pairatzen dituzten praktika txarrekin amaitzea, besteak beste, adin txikikoen gogoz kontrako ezkontzak edo mutilazio genitalak, laugarrena, etxeko lan ez ordainduak balioan jartzea, zerbitzu publikoak eta azpiegitura politiko eta sozialak erabiliz eta etxe barruko lanen banaketan ardurak banatuz, bostgarrena, emakumeen aukera berdintasuna bermatzea lidergoa eduki dezaten alor ekonomikoan nahiz publikoan, seigarrena, osasun sexual eta erreproduktibora sarbidea bermatzea, biztanleria eta garapenaren konferentzia internazionalaren akzio programarekin bat etorriz, zazpigarrena, baliabide ekonomikoak lortzeko aukera berdintasuna bermatzea emakumeei, jabetza eskubideak, lur jabetzak, zerbitzu finantzarioak edo herentzia jasotzeko eskubideak bermatuz, zortzigarrena, teknologiak, eta zehazki, informazio teknologiararen erabilera emakumeen eskura jartzea, hauen burujabetza hobetzeko, eta bederatzigarrena, genero berdintasuna eta emakumeen burujabetza bultzatzeko legedia sortu eta osatzea (NBE, 2018)

I.2.3. LAN MERKATUA GENERO IKUSPEGITIK

Europar batzordearen arabera, sexuaren araberako lanen banaketa honela definitzen da:

“Sexuaren araberako lanaren banaketak esan nahi du ordaindutako lana eta ordaindu gabekoa gizonen eta emakumeen artean banatzen dela, hala bitzta pribatuan nola publikoan, tradizioz bakoitzari izendatu zaion rolaren arabera” (Emakunde, 2014).

Nahiz eta pausoak ematen joan emakumeak lan merkatuan sartzeko orduan, oraindik nabarmen bereizten dira, batez ere zenbait sektoretan, emakumeen eta gizonen sektoreak, hau da, sektore gehienak maskulinizatuak daude, eta beste zenbait feminizatuak. Gainera, emakumeek monopolizatzen dituzten sektore gehienak zerbitzuekin lotuta daude, hain zuzen, EAEko hamar sektore feminizatuena zerbitzuen sektorekoak dira, besteak beste, etxeko langileak, zerbitzu pertsonalak, gizarte zerbitzuak, hezkuntza edo osasungintza (Larrañaga & Martínez, 2017).

Soldatei dagokionez, genero arteko soldata arrakala nabarmena da oraindik ere, 2014an esaterako, %13,8 txikiagoa zen batz bestea emakumeen soldata orduko, hau faktore ezberdinen ondorio izanik. Alde batetik, sektore feminizatuetan soldata baxuagoak daudela da, bestetik, zuzendaritzako postuak gizonentzako erreserbatzen dira kasu askotan, non, soldatak altuagoak diren. Gainera, lanaldi murriztuan proportzioan askoz emakume gehiagok egiten dute lan eta lan hauek okerrago ordainduta egoten dira eta azkenik, lan berdina eginagatik ere, zenbait kasutan oraindik emakumeek gutxiago kobratzen dute. Desberdintasun hauek eragin zuzena dute jubilazio garaian kobratuko den pentsioarekin ere, izan ere, lan munduan parte hartze motzagoa edo murriztua izateak pentsioa kobratzeko unean emakumeak zigortzen ditu, hain zuzen, kotizazio gabeko pentsioen %76a emakumeek kobratzen dute, kasu askotan lanik egiteko aukerarik izan ez dutelako beraien egoeragatik, edo ez direlako minimora iritsi. Kontribuziozkoen kasuan, gizonen %98ak kobratzen badu ere pentsioa emakumeen kasuan %36,5ak kobratzen du, baina beraien lan bizitzan soldata baxuagoak izan dituztenez pentsio txikiagoak geratzen zaizkie erretiratzean. Naiz eta azken urteetan parekatzeko joera izan duen merkatu baldintzak parekatzen doazelako, arrakala txikiagoa da 65-69 urtekoen artean zaharragoetan baino, oraindik bide luzea dago egiteko eta irtenbidea lan garaian soldatak parekatzetik etorriko da (Larrañaga & Martínez, 2017).

I.2.4. ZAINZA LANEN BANAKETA GIZARTEAN

Atal honetan ikusiko dugun bezala, tradizionalki emakumeak izan dira zaintza eta etxeko lanen arduradunak, batez ere azken hamarkadetan. Eta lan banaketa hau gaur egunerarte mantendu da. Munduan, lan sasoiaren dauden emakumeen %42ak ez du lan ordaindurik egiten, gizonen kasuan berriz datu hau %6koa da (Oxfam, 2020), datuak aztertuta pentsatzekoa da bi generoen arteko desberdintasuna emakumeek beren gain hartzen duten lan ez

ordainduen pisuagatik dela, hau da, zaintza eta etxeko lanak beraien gain hartzen dituztelako ezin dute lan merkatura jauzia egin. Hala ere honek ez du esan nahi lan merkaturan dauden emakumeek ez dutela kargarik lan ordaindutik kanpo, hau da, nahiz eta soldata truke lan egitera joan, kasu askotan gizonezkoek baino betebeharrak handiagoak izaten dituzte etxeko lanetan, esaterako, EAEn, 2013an batz besteko emakumeek 52 minutu gehiago egiten zuten lan egunean zehar (ordaindua eta ez ordaindua batuta), baina lanaren banaketari erreparatzen badiogu ordainduaren eta ez ordainduaren artean, ikusiko dugu emakumeen zati handiena lan ez ordainduak hartuko duela, batz besteko gizonek baino ordu bat eta 46 minutu gehiago eta gizonen kasuan zati handiena lan ordainduak hartzen du, emakumeek baino 54 minutu gehiago. (Legarreta & Sagastizabal, 2018). NBEak gizarteko generoen arteko erlazioaren adierazletzat hartzen du gizartean denbora nola banatzen den eta zertan ematen duten denbora genero bakoitzak batz besteko. Datu hauek ikusiz garbi geratzen da emakumeek egiten duten lan gehigarriaren zati handiena etxeko lanetan egiten dutela.

Gainera, etxeko lanaren banaketa etxe barnean bertikala da, hau da, ametea alabetara pasatzen da, txiki txikitatik lan karga handia edukiz neskek mutilekin konparatuz, estimatzen da, 10 eta 14 bitarteko neskatilek mutikoek baino %50 gehiago kolaboratzen dutela etxeko lanetan (Oxfam, 2020). Egoera honek ondorio zuzenak ditu aukera desberdintasunean, txikitatik emakumezkoek denbora gutxiago dutenez aisialdirako edo prestakuntzarako, prestakuntza maila baxuagoa izango dute eta ondorioz soldata kaskarragoak. Lan egiteko adinean berriz, ez dituzte aukera berdinak izango lan munduan txertatzeko, lehen aipatu bezala, kontziliazioa, prestakuntza maila baxua eta soldata arrakala izango direlarik muga nagusi. Hau gutxi balitz, bizitza osoan egoera prekarioak pairatu eta gero ikusi ditugun faktoreengatik zahartzaroan segurantzak gutxi geratuko zaie, pentsioak kobratzeko aukerarik gabe askotan edo hauek oso baxuak izanik, eta ala, lanean jarraitu behar izaten dute askok zahartzaroan aurrera doazen ahala bizitza aurrera ateratzeko, bai arlo ordainduan eta baita ordaindu gabean ere.

Gurera etorrira, oraindik ere nabarmena da emakumeek duten karga etxeko eta zaintza lanetan. Eustat-eko etxeko lanaren kontu satelitearen arabera, 2013an gizonek etxeko lanaren %33,3a bakarrik hartzen zuten beren gain gainerako guztia emakumeen esku utziz. Nahiz eta zifra lanaren ekitatiboki banatzen oso urrun egon, aipatzekoa da joera gorakorra duela eta azken bi hamarkadetan zifra hori %20,7 izatetik ia 13 puntu igo dela.

1.3. Zaintzaren definizioa

Behin eta berriz ari gara zaintzaren kontzeptua azaltzen, baina analisia zuzen egiteko beharrezkoa da zaintza zer den eta zer ez den argitzea. Puntu honetan, zaintzari buruz hitz egiten dugunean zertaz ari garen hitz egiten argituko dugu, zaintza mota ezberdinak esplikatu eta mendekotasuna duten pertsona ezberdinen kategorizazioa aztertuz, geroago zainduak izateko sistema ezberdinak aztertuko.

Zaintza zentzu zabalean ulertzen saiatzen bagara, hau da, bizitza jasangarri egiteko baldintza betetako ekintza guztien multzo bezala (Ezquerro, 2018), atal honetan, mota askotako zeregin eta lan egiteko moldeak ikusiko ditugu, eta zaintzan diharduten langileek lan hauek burutzerakoan dituzten baldintza prekarioak sektoreko ezaugarri nagusietako bat direla ikusi, nola lan ordainduan edo soldatapekoan ala ordainsaririk gabeko lanean. Beraz, zaintza modu zabalean ulertuta, beharrak estaltzeko modu eta maila ezberdinak daude, norberak bere burua zaintzea, ingurukoek elkar zaintzea eta behar espezifikoak dituztenak zaintzea kasu, gainera, zenbait kasutan behar hauek ez dira zertan pertsona batek estaliak izan behar, zaintza sare bat izan daiteke hauek estaliko dituen (Pérez Orozco, 2006).

Gaur egungo garapen ereduaren bideragarritasun falta agerian jartzen duten hainbat faktore daude, alde batetik, planetaren muga fisikoen gainditzea dago, hau da, gure kontsumo beharrak, gure planetak jasan dezakeenaren oso gainetik daude, bestetik, interdependentzia daukagu gizaki bezala eta bizitzan zehar zainketak beharko ditugu, eta azkenik, aberastasunen pilaketa dago, hau da, aberatsenek aberastasunak pilatzen dituzten bitartean pobrezia tasa handitzen doa eta hauen egoera txarrera (Ezquerro, 2018). Gaur egungo sistema ekonomikoak dirua aukeratu du zaintzaren aurrean eta horrela bizitzaren jasangarritasuna “pilaketarako logika”-rekin jarri du aurrez aurre, ekonomiak gutxi batzuek aberastasuna pilatzen jarraitzea ahalbidetu duelako, bereizketa hau genero bereizketarekin bat dator espazioan, merkatu logika guztiz androzentrista da eta lan ikusezin hauek behar beharrezkoak dira sistema martxan mantentzeko (Pérez Orozco, 2006).

Zaintza beharrak ulertzeko bi gako daude; Giza beharrak multidimentsionalak dira eta pertsonak ez gara sujetu autonomoak, hau da, interdependenteak gara (Pérez Orozco, 2006). Behar multidimentsionalez hitz egiten dugunean, bizitza mantentzeko behar guztiak barneratzen ditugu, hauek, forma, gradu eta dimentsio ezberdinetakoak izan daitezkeelarik. Alde batetik gizakiok behar materialak ditugu, hau da, behar fisiologikoak, eta bestetik behar ez-materialak, hau da, pertsonen ongizate emozionala bermatuko duten behar afektibo eta emozionalak. Horrela, pertsonak bizitzako aro ezberdinetan behar ditugu zaintzak, modu ezberdinetan bada ere. Interdependentziaz hitz egitean berriz, pertsonak gure gizartean bizirauteko duten autonomia faltaz ari gara hizketan, teoria ekonomiko androzentristek, emakumea gizonaren mendekoa dela esplikatu duten bezala, ekonomia feministatik honi buelta eman eta dependentzia bikoitza aldarrikatu dute, hauen esanetan, lan merkatuan egiten diren lanak ez dira autonomoak eta beraz, etxeetan egiten duten lanarekiko dependentzia dute, honela balioa eman nahi diote historian zehar baliorik eman ez zaion lanari (Pérez Orozco, 2006).

Horrela, bi zati nagusitan banatu dezakegu zaintza. Alde batetik ordaindu gabeko lana eta bestetik ordaindutakoa. Lehenengoan, etxeko nukleoan egindako lana sartuko lirateke, hau mantentzeko lanak, ingurukoak zaintzekoa eta etxetik kanpo egindako boluntarioritza lanak. Bigarrenengoan, zainketara bideratutako sektore espezifikoak edukiko genituzke batetik, hala nola,

hezkuntza sistema (publikoa naiz pribatua), osasun langileak, gizarte langileak, erresidentziak etab. Eta bestetik, etxe pribatuetan burututako lanak izango genituzke, bai zuzenean pertsonen zaintza lanak (haurrak, helduak edo dependenteak kasu) edo zeharkako lanak (sukaldatzea, garbiketa...). Beraz, bi eremu bereizten ditugu gaur egun daukagun zaintza ereduari, alde batetik, publikoa edo ordaindua eta bestetik, pribatua edo ez ordaindua (Pérez Orozco, 2006). Lanen banaketa honetan, sexuen arabera lan banaketa dagoela ikus dezakegu eta nahiz eta zaintzak bermatuta dauden gizartean, batez ere alor pribatuan erabat ikusezina da lan hau eta zaintzak bermatzen dituztenen egoerak ez dira egokiak. Banaketa honetatik harago, emakumeen egoera ikusi behar da, aztertutako denboraren erabilera datuek adierazten diguten bezala, askotan lan bikoitza egin behar izaten dutelako hauek, etxean eta handik kanpo. Gaur egungo ekonomia, familia nuklear “idealarentzat” pentsatuta dagoelako eta ez dituelako kontuan hartzen gizarteko aniztasuna eta prekaritatea (Pérez Orozco, 2006).

Gaur egungo garapen ereduaren bideragarritasun falta agerian jartzen duten hainbat faktore daude, alde batetik, planetaren muga fisikoen gainditzea dago, hau da, gure kontsumo beharrak, gure planetak jasan dezakeenaren oso gainetik daude, bestetik, gizakiok interdependentzia daukagu eta bizitzan zehar zainketak beharko ditugu, eta azkenik, aberastasunen pilaketa dago, hau da, aberatsenek aberastasunak pilatzen dituzten bitartean pobrezia tasa handitzen doa eta hauen egoera txarrera (Ezquerro, 2018).

Gure azterketa egiterakoan, mendekotasuna duten pertsonen zainketak egiten dituzten pertsonen lan eta bizi baldintzetan zentratuko gera geroago eta horretarako jarraian mendekotasuna definitzeaz gain, zaintzak eskaintzeko dauden sare eta sistema ezberdinak ikusiko ditugu geroago hauetako bakoitzeko lan baldintzak aztertzeko.

1.3.1. MENDEKOTASUNA: KONTZEPTUA ETA MOTAK

Mendekotasuna zer den ulertzeko, hau definitzen hasiko gara, horretarako, estatuko dependentziaren legera joko dugu. Honela definitzen du menpekotasuna dependentziaren legeak:

“Adinagatik, gaixotasunagatik edo ezgaitasunagatik, eta autonomia fisiko, mental, intelektual edo sentsorialarekin lotuta, beste pertsona baten edo batzuen beharra eguneroko zereginak burutzeko, edo ezgaitasun mentala edo intelektuala dutenen kasuan autonomia pertsonala edukitzeko laguntza behararen behin betiko egoera”. (BOE, 2006, norberak itzulia)

Beraz, menpekotasuna, zaintza beharra duten pertsonen behin betiko egoerari deitzen diogu.

Menpekotasun gradu ezberdinak aurreikusten ditu legeak:

- 1. Gradua, Mendekotasun moderatua: Pertsonak eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak burutzeko laguntza behar duenean,

gutxienez egunean behin edo aldizka laguntza behar duenean edo bere autonomia pertsonala murriztuta aurkitzen denean.

- 2. **Gradua, Mendekotasun larria:** Pertsonak laguntza behar duenean eguneroko jarduera ezberdinak burutzeko, egunean bi edo hiru aldiz, baina ez duenean behar laguntza uneoro edo ez dituenen behar zabalak bere autonomia pertsonalerako.
- 3. **Gradua, Mendekotasun handia:** Pertsonak eguneroko oinarrizko jarduera ezberdinak burutzeko laguntza behar duenean, autonomia fisikoaren, mentalaren, intelektualaren edo sentzorialaren galera totalagatik, eta beste pertsona baten etengabeko laguntza ezinbestekoa duenean hauek burutzeko edo autonomia pertsonalerako etengabeko beharrak dituenen.

Menpekotasun motei dagokienez, lau mota nagusi bereizten dira mendekotasuna eragiten duten faktoreen arabera.

- **Mendekotasun fisikoa:** Pertsonak bere gorputzaren funtzioen kontrola edo ingurunearekin interakzioa galtzen duenean ematen da, esaterako esklerosi anizkoitzaren kasuan.
- **Mendekotasun mentala:** Pertsonak bere arazoak konpontzeko eta erabakiak hartzeko ahalmena galtzen duenean, esaterako, Alzheimer gaixotasunaren kasuan
- **Mendekotasun sentzoriala:** Zentzumen baten murrizpena edo galeragatik sortzen da, batez ere ikusmena eta entzumena. Murrizpen honek pertsonari bere eguneroko bizitza garatzeko eragozpenak ekartzen dizkio.
- **Mendekotasun mixtoa:** Orokorrean gaixotasun batek arazo ezberdinak sortzen dituenen ematen da, zentzumen faltagatik mugitzeko gaitasunean eragozpenak kasu edo hitz egin, jan edo komunikatzeko arazoak, adibidez, Parkinson gaixotasuna dutenei gertatzen zaie.

I.3.2. MENDEKOTASUNA DUTEN PERTSONAK ZAINTEKO SISTEMA EZBERDINAK

Sistema ezberdinak aztertzen hasi aurretik, beharrezkoa da argitzea mota askotako mendekotasunak daudela aurreko atalean ikusi dugun bezala, eta ondorioz kasu bakoitzean behar desberdinak izango dituztela mendeko pertsonak, hauek zaintzeko aukeratutako metodoak behar hauen arabera egokituko direlarik, beti ere, familiak daukan errealitatera egokituz, bai denboran eta bai maila ekonomikoan.

Legeak pertsona hauei zerbitzuak emateko modu ezberdinak aurreikusten ditu, batetik, zuzenean zerbitzuak eskainiz, doan edo zati bat ordainduta, eta bestetik laguntza ekonomikoak emanaz mendekotasuna duten pertsonen edo hauen kargu egiten direnei, izan erretiro pentsioak ala mendekotasun legearen bidez ordainsari gabeko pentsioak. Jarraian, zaintza sistema ezberdinak

aztertuko ditugu, eta bakoitzean ze lan suposatzen dien zaintzaileei eta hauen egoera.

I.3.2.1. Familiek hartzen dute euren gain

Familiek, kasu askotan ezinbestean, euren gain hartu dezakete mendekotasuna duen pertsona zaintzeko ardura. Baliabide gutxien daukaten familiek, ezin izango dute kanpoko laguntza eskuratu, eta horrelako egoera batek familiako kideei, eta bereziki emakumeei, lan karga asko areagotuko die, ohiko zaintza lanez gain (sukaldatu, garbiketa, hurrez zaintza...) karga izugarria hartuko dutelako euren gain, aipatu beharra dago, kasu hauetan, aukera kostua ere garrantzitsua izango dela, zenbait kasutan, familiako kideren batek lana utzi edo murriztu behar izango duelako, aurreko ataletan ikusi dugun bezala orokorrean emakumeak.

Egoera honetan dauden pertsonen laguntzeko, hau da, mendekotasuna duen pertsonak etxean zaindu behar dutenentzako, mendekotasun legeak laguntza ekonomikoak aurreikusten ditu, horrela 2007. urtetik, familiek, mendekotasun graduaren arabera, hileroko diru-laguntza bat eskatu dezakete pertsona horren kargu egiteagatik. Beste zerbitzu publikoek pertsonaren beharrak bete ezin dituztenean 426,12€ eta 715,07€ artekoa eta pertsonak beste laguntzak jaso ditzaketenean familiari eta zaintzaile ez profesionali zuzenduta, osagarri gisa, 153€ eta 387,64€ bitartekoa (www.pensium.es, 2020).

I.3.2.2. Etxez-etxeko zaintza

Etxez etxeko zaintzaren barnean, mendekotasuna duten pertsonen arreta emateko etxe barnean egiten diren ekintza guztiek osatzen dute. Zaintzaileen zereginetan zaintzari zuzenean lotutako lanak egon daitezke, hau da, dutxatzen lagundu, jaiki, jantzi, jaten eman... edo zeharkako lanak, adibidez, etxeko garbiketa, janaria prestatu, erosketak egin... hauek behar pertsonalak eta etxeko beharrak bezala kalifikatzen dira.

I.3.2.3. Etxe barneko langileak

Hauek, mendekotasun maila altuena duten pertsonekin egiten dute lan eta normalean zaintzaren funtzio denak betetzen dituzte, orohar 24 ordu zaintza behar duten pertsonen arreta ematen diete eta ondorioz aurreko ataletan aztertu bezala, lanaldi luzeenak eta baldintza prekarioenak dituzten langileak dira hauek.

I.3.2.4. Erresidentzia sistema

Erresidentzia sistemak osasun zerbitzu eta zerbitzu pertsonal jarraituak eskaintzen ditu behar duten haientzako, mendekotasuna dutenen egoeraren arabera prestatutako egoitza berezietan. Egonaldi hauek behin betikoak izan daitezke, egoitza behin betiko bizileku bihurtzen denean, edo behin behinekoa, gaixoaldi puntualengatik bada edo zaintzaile ez profesionalen ezintasun puntual edo atsedenaldiengatik denean.

I.3.2.5. Eguneko eta gaueko zentroak

Eguneko eta gaueko egoitzek mendekotasuna duten pertsoneri zaintza integrala eskaintzen die egunez edo gauez, pertsona hauek autonomia hobetzeko edo ahalik eta denbora luzeenean mantentzeko, horrela zaintzaile eta familiari lan karga arinduz.

I.3.2.6. Teleasistentzia

Teknologia ezberdinak baliatuz larrialdi, bakardade, isolamendu edo segurtasun faltako egoeretan behar duten pertsoneri arreta emateko sistema da.

I.3.2.7. Prebentzioa

Mendekotasun desberdinak dituzten pertsonen artean, edo hauek edukitzea espero den kasuetan gaixotasun bat dela eta, beharrezkoa da hauen agerpena aurreikusi eta prebentzio neurriak hartzea okerrera joan ez daitezen, pertsonak ahalik eta denbora luzeenean eduki dezaten ahalik eta bizi kalitate handiena eta ondorioz zaintza gutxiagoren beharra.

I.4. Zaintza lanen baldintzak

Behin zaintza eta mendekotasuna definituta, eta hauek egin duten bilakaera historiko eta soziala ikusita, zaintza lanak gaur egun non dauden aztertzea pasako gara, hau da, zaintza lanak nola ematen diren, nork ematen dituen eta ze baldintzetan eskaintzen diren lan hauek aztertuko dugu mundu mailan, horrela begirada global bat izango dugu sektorearen inguruan geroago gertuagoko errealitatea ulertu eta bertan sakontzeko.

Ordaindutako etxeko lanen barnean, etxeko langileen egoeraren bereizgarri izaten da prekaritatea, izan ere, mundu osoan etxeko langile hauen %10ak soilik duela babes legala eta %50a ez dela soldata minimora iristen estimatzen da (Oxfam, 2020). Etxeko langileek dute egoera txarrena, ia babes legal eta eskubiderik gabe, soldata duin bat izateko, atsedean eta aisialdirako edo amatasun baja hartzeko. Datu hauek adierazten duten bezala, zati handiena emakumeen esku dago, eta lan hau ia ez da balioztatzen, baina hau ez da kasualitatea, emakumeek doan egiten dutelako lana kasu askotan eta lana ordainduta egiten duten kasuetan, ordainsari oso xumeen truke egiten dute, horrela balio falta honekin enpresa eta gobernuek ez dute ardurarik hartzen balio ekonomiko eskasa duelako. Gaur egungo sistema ekonomikoak desberdintasun hauek areagotzen ditu, hain zuzen, emakumeen zapalkuntzari etekina ateratzen diolako, eta emakumeak posizio ahul horretan mantenduta zaintzaren kostu ekonomikoa ia ezerezean geratzen delako (Oxfam, 2020). Tamalez, zaintzaile ordainduen egoera ez da hobea, gizartearen tendentzia zahartzarora luzatzea denez eta hurrengo urteetan zaintza beharra duten pertsonak areagotuko direnez lanpostuak sortzeko aukera izan daiteke hau, baina gobernuek beste aldera begiratzen dute.

Aipatu bezala, nahiz eta gobernuek erronka eduki zaintza premia duten pertsonen gorakada kudeatzen, murrizketak eta pribatizazioek gora egin dute azken urteetan (Oxfam, 2020), honek, alde batetik erregulazio gutxiago edukitzea ekarri du, eta ondorioz, efizientzia jaitea kostu gehigarriak suposatuz. Inbertsio publikoa jaistean, kapital pribatua etekinetan kontzentratzen da eta beste behin emakumeen lan eskubideetan atzerapausoak ematea suposatzen du.

I.4.1. ZAINZA LANEN KRISIA

Zaintza lanen krisiari buruz hitz egiten ari garenean, lan hauen banaketaren desestabilizazio prozesuaz ari gara hizketan, lan hauen ardurak gizartean modu ekitatiboan birbanatu ahal izateko (Pérez Orozco, 2006). Aldaketa hau pixkanaka ematen ari den arren gizartean, ardatz zaharretan oinarrituta ematen ari da eta honen ondorioz, baldintza prekarioak arazo nagusi izaten jarraitzen dute.

Izan ere, gaur egungo gizarte sistema eta kontsumoaren abiadura ez da jasangarria, sistema ekonomikoaren neurgailu nagusietako bat BPGa da eta hau kalkulatzeko kontuan hartzen dira bizitza arriskuan jartzen duten hainbat kontzeptu, besteak beste, gerrak, gaixotasunak eta petrolioia eta ez aldiz bizitza mantentzeko hain beharrezkoak diren zaintza lanak, horrela planetaren ustiapen masibo honengatik bizitza kalitateak txarrera egin du azken urteetan (Herrero, 2011). Horrela, zibilizazio krisi batera iritsi gara, non, kontziente izan behar garen bai gure gorputza eta baita gure planeta, eta hauek zaintzea, beharrezkoak direla bizitzaren iraupenerako, eta aitzitik, azken urteetan soldadak eta erosteko ahalmena txikitu eta zerbitzuak murriztu dira, aberastasuna gutxi batzuen eskuetan pilatuz eta zaintza lanen karga publikotik pribatura pasaz. Gaur egungo gizartearen egoera, beraz, ez dago pentsatuta bizitza jasangarri izateko, eta gure superbibentziari bizkarra emanez bizi gara, dirua jarriz pertsonen aurretik (Herrero, 2011), zaintza lanak devaluatuz eta hiri eredu ez jasangarriak bultzatuz, esaterako, haurrak zaintzerako orduan, hauek ezin dutelako lasai jolastu hirietan dagoen jende pilaketa eta trafikoagatik besteak beste.

Gizarte eredu honetan beraz, zaintzak guztiz beharrezkoak dira bizitza mantentzeko baina ez dira kontuan hartzen pilaketako merkatu logika baten aurrean eta beraz izeberg baten itxura hartzen du egitura sozioekonomikoak, Ur-azaleko zati ikusgarria lan merkatuak osatuko luke eta ur-azpiko zatiak merkatutik kanpo ematen diren lan guztiak, behar beharrezkoak izebergaren zati ikusgarria flotatzen mantentzeko (Pérez, 2006; Herrero, 2011).

I.4.2. LAN IKUSEZINAK AZALERATZEN

Zaintza lana gure gizartean erabat ikusezina da, eta nahiz eta kostu garrantzitsu bat izan familientzat (bai kostu monetarioa ala bai aukera kostua) ez da lana kontsideratzen zentzu hertsian (Oxfam, 2020). Balio ekonomikotik at ekarpen ugari egin ditu zaintzak gure gizartean, hala nola, giza garapena,

haurren ikasketa prozesua, helduen atsedena eta elikadura, eta gaixoak osatzea ahalbidetu dute lan hauek, beraz, balio ekonomikoa garrantzitsua izan daiteke baina balio soziala askoz handiagoa da.

Ikusi dugun bezala, zaintza lanak ekonomiko eta sozialki balioztatuak ez diren arren, ukaezina da gizartea mantentzeko behar beharrezkoak direla, lehenago edo beranduago denok izan behar dugulako beste pertsona batek zainduak, nola umetan, gaixo gauden garaian edo zahartzaroan, baina, ze balio monetario daukate lan hauek? Noski, ez da erraza kalkulu zehatz bat egitea baina saiakera ezberdinak egin dira lan hau kuantifikatzeko. Oxfam erakundeak (Oxfam, 2020) ordaindu gabe 12500 Milioi ordu inbertitzen direla egunean estimatu du eta hemendik gutxienez 10,8 Bilioi dolarreko balio gehigarria duela ekonomiarentzat kalkulatu. Gutxienez diogu, kopuru hau herrialde bakoitzeko soldata minimoarekin kalkulatuta dagoelako. Ideia bat egiteko, ia 2019an Alemania, Erresuma Batua, Frantzia eta Espainiaren BPGak batuta adina, 10,98 Bilioi dolar (FMIren arabera).

Datu hauek ikusita agerian geratzen da baliorik ematen ez zaion lan kopurua oso handia dela, baina etorkizunera begira, mundu osoko kolektiboen sare lana beharrezkoa dela adierazten du Oxfam-ek bere txostenean, horrela gaur egungo boteren ekonomiko eta politikoei gizartetik erantzun bat emateko. Gaztelaniaz 4R deituriko sistema proposatzen dute; *Reconocer*, *reducir*, *redistribuir* eta *representar*-ek osatzen dutena. Aitortza, zaintza lanak balioan jartzearen zentzuan, hau da, gizartearen ongizatearen oinarri diren heinean, bertan dabiltzan pertsonen lana baloratu, bai sozialki eta bai ekonomikoki. Murrizketa, Inbertsioak bultzatzea lan hauetan diharduten pertsoneri karga arintzeko, teknologia eta aurrerapenak aprobeztatuz eta baita gaur egun ditugun teknologiak ez dauden lekura eramateko, horrela ura eta elektrizitatea bezalako zerbitzuak zabalduz. Birbanaketa, bai kanpoan eta bai barruan, familia mailan ekitatiboki banatuz lanak eta amatasun eta aitatasun baimenak ekiparatzuz, eta gizartean, zerbitzu eta babes publikoa eskainiz pertsona hauei, birbanatze ekonomikoaren eskutik. Azkenik, ordezkatzeta, pertsona hauek ahots propioa izan dezaten estamentu guztietan.

Ilido beretik, OIT (2018) Lanaren erakunde internazionalak, lau kontzeptu hauez gain, beste bat ere proposatzen du, *Recompensar* edo saritzea ere barneratzen du bere txostenean. Lehenengo bloke batean, aitortza, murrizketa eta birbanaketa sartzen ditu eta besteak beste honako neurri hauek proposatzen dituzte: zaintza lan guztien neurketa eta erabaki katean kontuan hartzea, zaintza zerbitzu, politika eta azpiegituretan inbertitzea, ordaindu gabeko zaintza langileak sistema ordaindian integratzeko politikak martxan jartzea, familiarekin bat datozen lan sistemak ezartzea, hezkuntza eta informazio eskubidea berdina izatea generoen artean, zaindua izateko eskubidea bermatzea, eta politika ezberdinetan genero ikuspegia txertatzea. Bigarren bloke batean saritzea legoke eta ondorengo politikak proposatzen dituzte: zaintzaren lan merkatua arautu eta lan baldintza duinak lortzeko zaintzako langile guztientzat eta hauek berdinak izan daitezen genero artean, lan ingurune seguru eta atsegina sortzea zaintzako langile guztientzat eta

zainketa lanetan diharduten etorkinak babesteko legedia sortzea, bereziki kalteberak izanik. Azken blokean, ordezkatuak izateko neurrietan barneratuz, ondorengoak genituzke: emakumeen parte-hartze eta aukerak bermatzea esparru guztietan lidergoa eduki dezaten eta erabaki katean parte hartu dezaten, alor politiko eta ekonomikoan, askatasun sindikala bermatzea langile eta lan emaleentzako, eztabaida soziala eta negoziazio kolektiboak egin ahal izateko eskubidea bultzatu eta sareak osatzea zaintza langileen eta zaintza jasotzen dutenen eta ordaindu gabeko zaintzak betetzen dituztenen artean.

Hau guztia aurrera eramateko behar beharrezkoak ditugu gobernuen erabakiak norabide honetan, zaintza sistema nazionala eraikiz zerbitzu eta hornidura sarera sarbidea bermatuz, legislazioz, aberastasuna pertsonen zerbitzura jartzeko babes neurriak, zerga politika eta soldata minimoak bezalako tresnekin, zaintza langileen parte-hartzea bermatuz erabaki katean (ordainduak nahiz ordaindugabeak), zaintza balioesteko enpresa inizatibak bultzatuz, hau balioztatu eta politika zuzenak eginez esaterako kontziliazioa errazteko. Hau guztia aurrera eramateko beharrezkoa da gizarteko arau sexistak haustea, zaintzak ez duelako zertan emakumeen lana soilik izan eta horretarako beharrezkoa da gizonezkoek beren erantzukizunaren zatia hartzea, gobernuek heziketa bultzatu behar dute zentzu honetan (Oxfam, 2020). Ildo beretik, euskal herria kolektibotasunetik eraikiz argitalpenean, bizitza estilo jasangarrirako bidean lehenengo ardatz bezala jartzen ditu zainketak, eta neurri ezberdinak proposatzen ditu erakundeei begira, besteak beste, enpleguan erabiltzen den denbora murriztea eta lan ordainduak lan egiteko adinean dauden guztien artean banatzea, lanaren esanahia birpentsatzea eta soldatako lanaz haratago ordaindu gabeko lanen garrantzia onartzea, espazioak ahalbidetzea proiektu ezberdinak aurrera eraman ahal izateko, zainketa eta zainketa-sistema eskubide unibertsal modura ulertzea eta hau erabiltzeko eskubide bermatzea, zaintza sisteman inbertsio publikoak egitea eta irabazi asmorik gabeko erakundeen esku uztea kudeaketa, osasun eta hezkuntza doako eta unibertsalak bermatzea, kontsumo eredu berriak eta hezkuntza zentzu honetan bultzatzea edota kontziliazio neurriak bultzatzea bizitza pertsonala, lana eta familia bateragarri egiteko. (Desazkunde eta bizitze ona V. topaketetan "errebindikazio eta alternatiba kolektiboak" erakunde sarea, 2016). Politika hauek guztiak aurrera eramateko beharrezkoa da erantzukizun politikoa, ekintza hauek guztiek erakundeen aldetik bultzada beharrezkoa dutelako, eta baita ardura kolektibo eta indibidualak ere (Legarreta & Sagastizabal, 2018).

Berdintasuna lortzeko maila ekonomikoan beharrezkoa izango da berdintasuna lortzea gainerako esparruetan ere, etxeko lanen ardura handiagoa muga delako emakumeentzat lana egin edo lana bilatzerako orduan eta selekzio prozesuetan kontuan hartzen den kontua da hau. Berdintasuna garrantzitsua da gaur egungo gizartean baina ematen diren pausoak garrantzitsuak dira eta beharrezkoa da aldaketarako bidean hurrengo belaunaldietako emakume gazteek erreferenteak izatea esparru ezberdinetan (Larrañaga & Martínez, 2017).

Zaintza lanek duten inpaktua neurtzeko zaintza aztarna tresna egokia izan daiteke, hau, giza bizitza mantentzeko beharrezkoak diren denbora, afektua eta energiaren arteko erlazioa da (Herrero, 2011), eta hemendik zaintzaren zorra kontzeptua sortzen zaigu, indikatzaile honek eman digun balioa sistema sozioekonomikoak munduko emakumeekin lukeen zorra litzatekelako. Hau tresna oso egokia izan daiteke ikusgarritasuna emateko zaintza lanei.

Bizitza eta zaintza erdigunean jartzea eta lan honi balioa ematea gakoa da bizi baldintza duinak lortzerako bidean, pertsonen interdependentzia onartu eta pertsonen rol aktiboa sustatu bizitza jasangarriak bizi ahal izateko. Horretarako, bizitzak autonomoak diren ideia baztertu beharko da eta pertsonak “sujetu arduratsu bihurtu beharko dira”, zaindua izateko eskubidea aldarrikatuz eta aldi berean zaintzeko ardura onartuz (Pérez Orozco, 2006).

II. Kapituluua: EAE eta Gipuzkoako egoeraren analisia

Behin zaintza lanek izan duten ibilbide historiko eta soziala aztertuta, gure lurraldeko gaur egungo egoera aztertzeraz pasako gara. Kapitulu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Gipuzkoako lurralde historikoko kasuak aztertuko ditugu, alde batetik, zaintzaileen lan baldintzak, eta finean, egoerak aztertzeko, eta bestetik, mendekotasuna duten pertsonen, hau da zaintza hauen hartzaile direnen egoerak eta dituzten laguntzak motak aztertuko ditugu. Analisi hori egiteko, zerbitzu eta laguntza publikoak, sare kontzertatuko zerbitzuak eta modu pribatuan (zaintza ez ordainduen kasuan) eskaintzen diren zaintzak aztertuko ditugu. EAE eta Gipuzkoako errealitateetan zentratuko bagara ere, aipatu beharra dago datu objektiboak lortzea oso zaila dela, izan ere, sektore honetako errealitatea, aurreko kapituluak ikusi dugun bezala, alde batetik oso anitza da, eta bestetik, zati handi bat ezkutatuta dago, beraz, iturri ezberdinetako datuek gauza oso desberdinak erakusten dizkigute, datu hauek beraiek lortzeko dituzten metodologiak medio. Nahiz eta analisi zehatza egitea ez den erraza, datuek hurbilketak egiteko balioko digute eta iturri ezberdinak aztertuz argazki ahalik eta argiena egiten saiatuko gara. Tokian tokiko elkarteek egindako azterketa eta estatistikak ere interesgarri suertatuko zaizkigu analisi hau egiteko, nahiz eta hauek geografikoki mugatuak izan, eta lagin bezala talde txikiak hartu diren arren, errealitateak gertuen dauden datuak lortzeko gai dira tokian tokian, eta hauek gure azterketarako argigarriak izan daitezke.

II.1. Legedia

Datuak aztertzen hasi aurretik, eta hauek ondo ulertu ahal izateko, oinarri juridikoa aztertuko dugu, ondoren egingo dugun egoeraren analisia egiteko beharrezkoa delako testuinguru juridikoa ulertzea.

II.1.1. ESTATU MAILAKO LEGEDIA

Lehenik, estatu mailako legedia aztertu behar dugu, eta eremu honetan lehenengo lege esanguratsua soldatapeko lana eta familiaren uztarketari buruzko 39/1999 legea da. Emakumeak lan ordainduan txertatzearekin batera, soldatapeko lana eta familia uztartzeko arazoak azaleratuko dira eta hain zuzen lege honen helburua arazo hauei irtenbidea ematen saiatzea izango da. Helburu honekin, besteak beste, emakumeek egunean ordu bat lanetik irteteko eskubidea izango dute haurrak edoskitzeko, mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko baimenak ezarriko dira langileentzat, batez ere, adingabeak zaintzeko eta kontratuaren behin behineko etenaldi ordainduak edo eszedentziak arautuko dira (FITEQA-CCOO, 1999).

Estatu mailako legediarekin jarraituz, ezin da aipatu gabe utzi mendekotasunaren legea. Aurreko ataletan aztertu dugun bezala, lege honek baldintzak jarriko ditu mendekotasuna duten pertsonak etxean zaintzea gauzatu ahal izateko eta sare publiko eta pribatuko zerbitzuak aurrera eraman ahal izateko. Bere helburu nagusiak, mendekotasuna dutenen autonomia sustatzea eta hauei babesa eskaintzea eta baliabide publiko zein pribatuak optimizatzea dira (BOE, 2006).

Estatu mailako legeekin amaitzeko, 3/2007 berdintasunaren legea aipatu behar dugu, lege honen oinarria, diskriminazioa definitzea eta sektorez sektore berdintasuna sustatzea da, zaintzei dagokienez, amatasun eta aitatasunagatik diru laguntzak arautzen ditu, eta deigarria da, bi kasuetan aurretik egindako lanaren oinarriaren %100a kobratzen bada ere baldintzak desberdinak direla gizon eta emakumeentzat hau eskatu ahal izateko, adinaren arabera zenbait kasutan (21 urtetik behera) emakumeek ez dutelako minimorik kotizatu behar hau eskuratzeko eta gizonen kasuan berriz gutxienez 180 kotizatu behar direlako ezin kasutan (BOE, 2007).

II.1.2. EAEKO LEGEDIA

Berdintasunarekin jarraituz, EAEk ere badu bere berdintasunaren lege propioa, 4/2005 legea hain zuzen ere. Lege honek honako helburu hauek finkatzen ditu: Tratu berdintasuna generoen artean, aukera berdintasuna, aniztasuna eta ezberdintasuna errespetatzea, eguneroko jardunean genero ikuspegia txartatzea, sexuaren araberako estereotipo eta rola desagerraraztea eta administrazio publikoetan ordezkariak orekatua izatea. Horretarako jartzen dituen tresna nagusiak Emakunde eta bertan integratua dagoen berdintasunaren erakunde arteko batzordea dira eta hauekin batera berdintasunerako defentsa erakundeak ateratzen duen txostena, baita Jaurilaritzaren berdintasunerako plana ere. Etxeko lanei ere egiten die aipamen txiki bat eta hauen kalkulua egitea aldi berean barneratzen du, erantzunkidetasuna bultzatzeko helburuarekin eremu honetan (EHAA, 2005).

13/2008 legea berriz, familiei laguntzeko helburuarekin sortu zen eta bertan hauei babesa emateko hainbat neurri aurreikusten dira. Lehenik eta behin, diru-laguntzak aurreikusten dira seme-alabak karguan dituzten gurasoentzat, eszedentzia edo lan murrizpena hartzeagatik izan dezaketen diru sarrera galera konpentsatzeko, baita enpresentzat ere, eszedentzia edo murrizpen hauen aurrean kontratatu behar dituzten ordezkoen gizarte segurantzei aurre egiteko. Beste alde batetik, zerbitzuak ere aurreikusten ditu legeak familia zaugarrienei laguntzeko, zerbitzu hauek, honako funtzioak beteko dituzten besteak beste, etxebizitzarako sarbidea erraztu familiei, kirol eta aisialdi ekintzak sustatu, aukera berdintasuna eta parte hartzeko eskubidea bermatzeko, gizarteratzean arreta jarri gizarte premiak aztertuz eta enplegu programetan lehentasuna emanez, eta gizarte zerbitzuak eskainiz, etxez- etxe laguntza eta zaintzaileek atseden hartzeko laguntzak bezalako neurriekin. Honekin batera sentsibilizazioan ere jartzen du arreta legeak eta

etxe barruko nahiz enpresa munduko sentsibilizazioa sustatu nahi du, alde batetik etxe barruko lanak ekitatiboki banatu daitezzen eta bestalde enpresa, elkarte eta sindikatuek neurriak har ditzaten kontziliazioa errazteko (EHAA, 2008).

II.1.3. GIPUZKOAKO LEGEDIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak ere badu gizon eta emakumeen berdintasunerako lege propioa, 2/2015 legea hain zuzen. Bertan, honako helburu hauek zehazten dira, Foru Aldundiaren eguneroko jardunean genero ikuspegia txertatzea, estatistikak egin eta doitzea denboran zehar, berdintasunerako programak sortzea, sentsibilizazioa sustatzea, bazterkeria egoeran daudenei bereziki babesa ematea eta kontziliazioa sustatzeko zerbitzu sozio-komunitarioak eskaintzea. Lege honek, arreta berezia jartzen du zaintza duinen eta unibertsalen eredu sozialerako trantsizioan, eta horretarako zaintzaile profesionalen lan baldintzak hobetzeko neurri hauek aurreikusten ditu: zaintza duinen eredia sustatzea mugimendu feministarekin elkarlanean, rola hautsiz estereotipoak ezabatzea zaintza lanak banatzerako orduan, gizonen erantzunkidetasuna sustatzea, zaintza profesionalen sektorean lan baldintza duinak sortzea, eta azkenik, zaintza zerbitzuak ematen dituzten entitateen kudeaketa eredu jakin bat sustatzea, hain zuzen, enpresen errentagarritasuna zerbitzua bera zein zaintzaile ez profesionalen lan baldintzen degradazioaren kontura egingo ez duen eredia. Gainera, legeak bizitza jasangarria egiten duen ekonomia baterantz egin behar dela aipatzen du eta horretarako hurrengo neurriak ezarri, besteak beste, pertsona guztien baliabideetarako sarbidea bermatzea eta ekonomia eredia egokitzea genero ikuspegitik jasangarria den bizitza eredurantz egiteko. Horrela, gizarte birsorkuntza krisiari aurre egin eta egungo sistema sozio-ekonomikoari buruzko eztabaida irekiz (GAO, 2015).

II.2. Gobernuen plan estrategikoak

Behin legeak ezartzen dituen arau eta helburuak ezagututa, aztertu behar ditugun lurraldeek dituzten plan estrategikoak aztertuko ditugu, nahiz eta oso zabalak izan plan hauek eta atal desberdinetako aipamenak interesgarriak diren, elkar lotuak daudelako, batez ere zaintzaren arloan egindako ekarpenak aztertuko ditugu.

II.2.1. EAEko EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VII. PLANA

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. plan honen xedea, botere publikoak gidatzea da, bizitzaren arlo guztietan berdintasuna sustatzeko eta emakumearen mendekotasun posizioa hausteko. Horretarako lan lerro

ezberdinak finkatzen ditu, baita lan eta zainketen munduan ere, eta ildo horiek aztertuko ditugu jarraian.

Plan honek ildo ezberdinak jorratzen ditu, besteak beste, lan prozeduretan genero ikuspegiaren txertaketa, berdintasuna sustatzeko kontzientziazio kanpainak edo berdintasun ekonomikoa lortzeko bidean neurri ezberdinak, esaterako soldata arrakala murrizteko neurriak proposatuz edo emakumeen okupazio tasak handitzea proposatuz, enplegu hauen kalitatea sustatuz. Ildo horretan, zainketei lotutako lanpostuei ere erreparatzen die, zainketarekin lotutako enplegu sorguneak erabat garatzea sustatuz, bertan kalitatezko enpleguak sor daitezen eta prekarizatutako eta feminizatutako sektoreen lan baldintza eta gizarte estaldurak hobetzea proposatuz.

Zainketei dagokienez, bizi eredu jasangarriaz hizketan hasten da plana, baina onartzen du hau gauzatzeko paradigma guztiz aldatu behar dela gizartean, pertsona guztiek kalitatezko enplegu eta zainketak izan ditzaten eta inor ez dadin behartuta sentitu zainketak egiteko beste gauzak alboratzera. Nahiz eta onartu aldaketa sakonagoak eskatzen dituela eraldaketa honek, ondoren finkatzen dituen helburuekin eraldaketa horretan lagundu nahi du. Horretarako honako gaiei heldu behar zaiela deritzo: lehenengo, zaintza lanak ikusgarri egin eta balioan jartzea, batez ere EUSTATen bidez lan hauen balioespena egiten, zerga politikan generoa txertatzea, gizarte eredu aldatu eta zaintza lanak barneratuko dituen, eta azkenik, gizarte antolamendu berri bat sortzea, zaintza lanak estatuaren, merkatuaren, familien eta gizarte zibilaren artean banatzeko, lanak modu ekitatiboan banatuz esparru guztietan berdintasuna lortzeko funtsezkoa delako.

Lehenengo helburua bide honetan, zainketa lanak bizitzaren jasangarritasunerako ezinbesteko baldintza direla onartzea da, eta horretarako hainbat azpi-helburu finkatzen ditu, lehenengoa, zainketa emakumeen ardua dela ukatzen duten pertsona kopurua handitzea, lan hauek gizarte premia bat direla ulertuz eta gizonak, eta gizartea oro har, inplikatzeko. Bigarren azpi-helburua, eredu tradizionala zalantzan jarri eta berdintasunarekin bat datozen diren gizonen kopurua handitzea da. Hirugarrena, gaur egungo zainketa eredu zalantzan jartzea, gero eta handiagoa den zainketa eskariari aurre egiteko, erantzunkidetasun eta zainketa lanen onarpen sozialaren ikuspuntutik. Eta azken azpi-helburua, eztabaida publikoa sustatzea bizitza jasangarri egingo duen ekonomia eredu bat bultzatzeko.

Ordaindu gabeko zaintza lanak duten pisua kontuan hartuta, hauek ikusarazi eta balioztatzea jartzen du helburutzat plan honek. Batez ere azterketa makroekonomikoan txertatuz lan hauek, horretarako kontu satelitea erabiliz lan hauek balioesteko eta politika fiskaletako azterketetan txertatuz lan hauek zaintza lan hauetara bideratzen den diru kopurua balioesteko.

Azken helburu orokora, ardurak birbanatuz zainketen antolakuntza sozial berri bat babestea da. Horretarako azpi-helburu ezberdinak finkatzen ditu, lehenengoa, generoen arteko desoreka murriztea litzateke, ordaindu gabeko lanetan pasatako denbora desberdintasunak ezabatzeko. Bigarrena, haur eta gazteek zainketetan ematen duten denbora handitzea, mutilei arreta berezia jarritz. Hirugarrena, kontziliazio neurriak jasotzen dituzten gizonen kopurua handitzea litzateke. Laugarrena, kontziliatzeko zailtasunak murriztea litzateke. Bosgarrena, amatasun eta aitatasun baimenak parekatzea, berdinak eta besterenezinak izatea. Seigarrena, zainketen erantzunkidetasuna handitzea sektore pribatuan. Zazpigarrena, administrazio publikoko langileen kontziliazio parekidea bultzatzea. Zortzigarrena, zaintzak eskaintzen dituzten zerbitzuen, eta oro har zerbitzu publikoen, ordutegiak malgutzea. Eta azkenik, bizitza jasangarriago egingo duten, hau da, kontziliatzen eta pertsonen autonomian lagunduko duten hirigintza-plan eta etxebizitza eta garraio ereduaren irizpideak finkatu eta aplikatzea (EMAKUNDE, 2018).

II.2.2. JAURLARITZAK AURREIKUSITAKO ZERBITZU EZBERDINAK

Behin berdintasunerako planak zaintzen eta zaintzaileen inguruan dioena aztertuta, eusko jaurlaritzak aurreikusten dituen zerbitzu ezberdinak aztertuko ditugu, hauek, espainiar estatuko mendekotasun legean oinarritutakoa dira eta hauek eskaintzeko ardurak jaurlaritzak, foru aldundi eta udalen esku geratzen bada ere, autonomia erkidegoko gobernuaren web orrian (www.euskadi.eus) zerbitzu hauen xehetasunak aurki ditzakegu. Zerbitzuen nondik norakoak aztertzeaz gain, hauen helburuetan jarriko dugu arreta berezia, izan ere, orokorrean mendekotasuna duten pertsonen ongizatea izanda ere helburu nagusia, zaintzaileen ongizatean ere jartzen dute arreta zerbitzu hauen helburuek, jarraian ikusiko dugun bezala, hauek ongizate fisiko, emozional eta soziala bermatzeko neurriak hartuz. Jarraian zerbitzu esanguratsuenak aztertuko ditugu banan-bana bakoitzaren berezitasunak eta zaintzaileen eta zainduengan duen eragina ikusiz.

II.2.2.1. Etxez-etxeko laguntza zerbitzua (ELZ)

Zerbitzu honek, laguntza eta prebentzio izaera du eta gehienez I. graduako intentsitateko mendekotasuna dutenei zuzenduta dago. Bere helburu nagusia erabiltzaileei bizilekuan jarraitzen laguntzea da komunitate integrazioa errazteko eta isolamendu egoerak saihesteko, autonomia pertsonala hobetu edo mantenduz, laguntza honekin narriadura prebenituz edo autonomia galera konpentsatuz, horrela erabiltzaileek bizi kalitatea mantendu dezaten etxeetan ahalik eta denbora gehien eta egoitzetarako sarrera atzeratuz edo ekidinez. Gainera, erabiltzaileen segurtasun sentimendua indartzea ere badu helburutzat zerbitzu honek.

Zaintzaileei begirako neurrien artean, zerbitzu honen helburua zaintzaile nagusiei karga kentzea da hauek beren garapen pertsonala aurrera eraman

ahal izan dezaten, batzuetan zerbitzua denboran jarraian emanda eta besteetan, zaintzaile nagusia ordezkatzuz, edo tarte batean zerbitzua areagotuz, denbora tarte jakinetan, honek oporretarako eskubidea izan dezan.

Zerbitzu hau bateragarria da beste zerbitzu eta prestazio ekonomikoekin eta baterako ordainketari lotua dago.

II.2.2.2. Zaintzaileei laguntzeko zerbitzuak

Zerbitzu honen helburu nagusia zaintzaile ez formalen prestakuntza bultzatzea da, informazio, orientazio eta prestakuntzaren bidez, bai zaintzen kalitatea hobetzeko baina baita zaintzaileek beren burua zaintzen ikas dezaten ere, beraien bizi-kalitatea hobetzeko. Zaintzen inguruko jakintza zabalduz eta jarrera eta trebetasunak eskura ditzaten zaintzaileek. Zerbitzu honekin erantzunkidetasuna ere bultzatu nahi da, hau da, zaintzaile izan daitezkeen inguruko pertsonak formatu nahi dira zaintzaile nagusiari lagundu diezaioten bere lanetan eta zaintzaile ez nagusien kopurua areagotzeko, zaintzaile nagusien lan karga arintzeko asmoz.

II.2.2.3. Eguneko arreta zerbitzuak

Zerbitzu hau, pertsonen premia espezifikoak betetzeko intentsitate txikiko laguntza da eta bi erabiltzaile talderi zuzendua dago, batetik, mendekotasun arriskuan edo I. graduan dauden adinekoei, beren autonomia eta gizarteratzeari eusteko eta bestetik, bazterkerian egoeran dauden pertsonen eguna non pasa izan dezaten eta oinarrizko premiak asetzen laguntzeko, bai behar fisiologikoak eta baita informazio eta laguntza zerbitzua emanaz eta beraien egoera normalizatzeko bitartekoak eskainiz.

Erabiltzaileak lehenengo kasuan 65 urtetik gorako adinekoak dira (gehienez I. graduko mendekoak) eta bigarrenengoan berriz adina 18 urtetik gorakoentzat dago mugatuta. Baterako ordainketari lotua dago adinekoen modalitatean eta zaintzaile nagusiei atsedean emateko modalitatea ere badu, behin behinean eskainiz zerbitzu hauek.

II.2.2.4. Adinekoentzako ostatu zerbitzuak

Zerbitzu honek bi modalitate nagusi hartzen ditu bere baitan, alde batetik, egonaldi luzeak edo iraunkorrak, eta bestetik, aldi baterako egonaldiak. Intentsitate txikiko zerbitzua da eta langileen laguntza tutoretza sistema bidezkoa da, erabiltzaileek beraien komunitate ingurunea mantendu dezaten ahalbidetuz eta autonomia pertsonal maila hobetuz edo mantenduz, horrela erabiltzaileak babestuak sentitu daitezzen eta isolamendu egoerak saihestuz. Bi etxebizitza motatan ematen dira zerbitzu hauek, batetik, tutoretzapeko apartamentuetan, hauek etxebizitza autonomoak izanik, zerbitzu komunak

baldin badituzte ere, eta bestetik, etxebizitza komunitarioak, non ekipamenduek izaera kolektiboa duten.

Zerbitzu hau, I. mailako mendekoei zuzenduta dago batez ere, ostatu alternatiba behar duten adinekoentzat, bai ez dutelako alternatiba egokirik edo bai bakardade arazoak dituztelako. Intentsitate txikiko laguntzak behar dituzten eta komunitatean bizitza autonomoa egin dezaketenei zuzendua dago. Atsedeen zerbitzu modalitatearen barnean dago eta baterako ordainketari lotua.

II.2.2.5. Autonomia mugek eragindako premiei erantzuteko eguneko zerbitzua edo zentroa

Zerbitzu hau, intentsitate ertain edo handikoa izan daiteke, eta beraz, mendekotasun handia duten edo %60tik gorako desgaitasuna duten pertsonen zuzendua dago. Bertan hezitzaileen presentzia etengabekoa da, adar ezberdinetako profesionalen arreta barneratzen du, ongizate fisiko, psikologiko eta soziala bermatzeko, eta behar bada mediku eta erizaintza zerbitzua ere barneratzen ditu.

Arreta indibidual eta integrala eskaintzea du xede zerbitzu honek, autonomia pertsonala hobetu edo mantendu dezaten erabiltzaileek, muga funtzionalak konpentsatu ditzaten edo dituzten zainzaileei laguntza eskainiz hauek zaintzeko. Mugak dituztenei egunerokoan laguntzeko zentron eta desgaitasuna edo gaixotasun mentala duten pertsonentzako eguneko zentron bidez ematen da zerbitzu hau. Baterako ordainketari lotua dago.

II.2.2.6. Autonomia-mugek eragindako premiei erantzuteko gaueko zentroak

Zerbitzu honen helburua, mendekotasun egoeran dauden eta gauez intentsitate ertain edo handiko gainbegirada behar duten pertsonen arreta eskaintzea da, ohiko zainzaileek etxean ezin dituztenean hauek eskaini edo ohiko zainzaile hauek atsedeen har dezaten etengabeko zaintzak ekidinez. Bi mota nagusi bereizten dira, alde batetik adinagatik mendekotasuna duten erabiltzaileak eta bestetik desgaitu fisiko edo mentalak. Zerbitzu hau baterako ordainketari lotua dago.

II.2.2.7. Adinekoentzat egoitza zentroak

Zerbitzu honen helburua II. eta III. graduako mendekoei ohiko bizitokia eskaintzea da, edo aldi baterakoa zainzaileek atsedeen hartzeko modalitatean, beren beharrak ezin direlako ase beste modu batean edo arreta integrala eta jarraitua behar dutelako. Bertan zainzaileak 24 orduetan zaintzeaz gain erabiltzaileak, mediku eta erizain zerbitzua eta diziplina anitzetako profesionalen artapena dituzte. Zerbitzu honen helburuen artean, zainketa eta laguntza eskaintzea erabiltzaileei hauek autonomiari ahalik eta denbora

luzeenean eusteko legoke, baita ingurune harremanak sustatu eta eustea edo babes sentimentua ahalbidetzea erabiltzaileen artean. Nahiz eta II. eta III. graduko mendekoei zuzendua dagoen zerbitzu hau, bizikidetzaren unitatea mantentzeko helburuarekin, mendekotasuna duenarekin ohiko moduan bizi direnek ere badute zerbitzu hau baliatzeko aukera. Zerbitzu hau baterako ordainketari lotua dago.

II.2.2.8. Atsedenerako zerbitzua

Atsedenerako zerbitzua zaintzaile nagusiak atsedenerako har dezan aurretik ikusitako zerbitzu desberdinetan aldi baterako parte hartzeak barne hartzen ditu, zaintzaileak denbora izan dezan atsedenerako hartzeko, suspertzeko, aisialdirako, autozainketarako eta garapen pertsonalerako, horrela, gainkarga eta estresa ekiditeko asmoz eta hauek osasunean izan litzaketen ondorio kaltegarriak ekiditeko asmoz, beraz, zaintzaile nagusi ez profesionaleri begirako neurri bat litzateke hau. Helburu osagarriak ere baditu zerbitzu honek mendekotasuna duten pertsoneri begira, egonaldi hauek aprobetxatuz trebetasun ezberdinak irabaztea kasu, autonomia pertsonala garatzeko, harremanetarako edo ingurune berrietara egokitzeko. Baterako ordainketari lotutako zerbitzua da hau.

II.2.2.9. Telelaguntza

Telelaguntza telefonoz eta ekipamendu informatikoen bidez ematen den zerbitzua da, urtean 365 egun eta egunean 24 orduz martxan dagoena. Zerbitzu hau, harreman eta alerta zerbitzu batean oinarritzen da eta datuen erregistroarekin zuzenean lotuta dago pertsonen identifikazio eta aurrekari soziosanitarioen datu base batekin lotuta dagoelako. Honakoak dira zerbitzu honen helburuak, autonomia mugatua duten pertsonak edo etengabeko arreta behar dutenak egoitzak ekiditea, familia laguntza sareekiko harremanak mantentzea, hauei laguntza eskainiz eta larrialdi egoera batean berehalako esku hartzea. Zerbitzu hau mendekotasun egoera arinean edo arriskuan dauden pertsoneri zuzendua dago, baita bakarrik bizi diren adineko pertsona autonomoei eta isolamendu arriskuan dauden pertsoneri ere. Baterako ordainketari lotutako zerbitzua da.

II.2.2.10. Prestazio ekonomikoak

Prestazio ekonomikoek dagokienez, bi prestazio aurkitu ditzakegu, lehenengoa laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa (LPPE), mendekotasuna duen pertsonari laguntzeko bere bizitza ahalik eta autonomoena eramaten, ikasten edo lanean jarraitzea ahalbidetuz. Eta familia inguruneko zainketarako eta zaintzaile ez profesionaleri laguntzeko prestazio ekonomikoak (FIZPE), familiari edo mendekotasuna duen pertsona zaintzeko kargua duenari ematen zaizkio laguntza hauek eta mendekoa zaintzeak dakartzan gastuei aurre egitea du helburu. Bi kasuetan zenbatekoak muga bat izango du eta hartzaileen ahalmen

ekonomikoa eta beste prestazio eta zerbitzuen onuragarria denaren arabera egokituko da kasuz kasu.

II.2.2.11. Beste zerbitzuak

Beste zerbitzu batzuk ere aurreikusten dira erabiltzaileen autonomia sustatzeko baina zaintzailerik behar ez dutenak, garraioa egokiturako sarbidea bermatzekoa, etxebizitzak egokitzekoa irisgarritasuna bermatzeko edo laguntza teknikoak (batez ere laguntza produktuak, besteak beste, gurpildun aulkiak, protesiak...).

II.2.3. GIPUZKOAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. FORU PLANA

Emakume eta gizonen berdintasunerako II. foru planak 2012 eta 2020 urteen artean bide honetan egiteko ildo orokorrak barneratzen ditu. Hau ulertzeko, beharrezkoa da 2012. urtean kokatzea, eta hain zuzen, dokumentuak arreta berezia jartzen du momentu horretako krisi ekonomiko eta sozialaren ezaugarrietan. Izan ere, ordura arteko bizitza prozesuen eta hauen inguruaren porrota esplikatzen diren sektore ezberdinetako krisiak aipatzen ditu, denak elkar lotuak, lehenengo, zainketen krisia, ordura arteko sistema tradizionalaren gainbehera aipatuz eta zaintza hauek eskasak izateaz gain emakumeen esku daudelako hein handi batean. Bestetik, osasun krisia, gizarte-birsorkuntza krisia eta krisi ekologikoa ere aipatzen ditu, gizartearen ongizaterako beharrezkoak diren sektoreak izanagatik gainbehera doazelako. Honi lotuta, zerbitzuen krisiaz ere mintzo da, eta sektorearen pribatizazio, ikusezintasun, feminizazio eta baldintza txarrez hitz egiten du.

Horrela, gaur egungo ekonomia ereduaren, hau da, kapitalaren pilaketa eta irabazi tasen ekonomiaren, eta bizitzaren jasankortasunaren artean gatazka sortzen da, eta Foru Aldundiak bere planarekin “bizitza ona” deituriko zainketa eta gizarte antolaketa ereduak sustatu nahi ditu, bizi molde, sare eta praktika feministak aurrera eramanez.

Plan honek, kapitulu bat eskaintzen dio bereziki zaintzen arloari eta helburu desberdinak eta hauek aurrera eramateko ekintzak zehatzen ditu bi ardatzetan, batetik, zaintzak jasotzen dituztenen ikuspuntutik eta bestetik, zaintza lanak egin behar dituztenen ikuspuntutik, bi printzipio nagusiri jarraiki, hain zuzen, duintasuna eta unibertsaltasuna. Horretarako helburu zehatzak finkatzen ditu, hauek burutzeko ekintza zuzenekin. Lehenengo helburu orokorra, zainketa antolatuen eredu bat sustatzea da, bizitzaren iraunkortasunari egindako ekarpenean oinarrituta, bizitzaren zaugarritasuna eta elkarrekiko mendekotasuna kontuan hartuta, hau gauzatzeko zenbait alderdi ezartzen ditu plangintza honek, batetik, zaindua izateko eskubidea, alderdi bikoitzekoa, hau da, zaintza egokiak jasotzeko eskubidea eta zaintzailearen zaintzeko edo ez zaintzeko borondatea errespetatzea, bestetik, laguntza ekonomikoak, bai familiarrekoei mendekotasuna duen pertsona

zaindu ahal izateko eta bai mendekotasuna dutenei bizitza autonomia egiten sustatzeko, eta azkenik, zerbitzu sistema zabala, Espainiako mendekotasun legeak aurreikusten duen bezala, egoitzekin, etxez etxeko zerbitzuarekin (nahiz eta udalen eskumena izan Foru Aldundiak finantzatzen du), telelaguntza zerbitzuekin, laguntza teknikoekin, oporretako programekin, etab. Aipatzekoa da, Gipuzkoan, beste lekuetan ez bezala, bateragarriak direla zerbitzuak jasotzea eta diru-laguntza kobratu ahal izatea.

Demografia aldaketek ere zerikusi handia dute zaintza eredia planteatzerako orduan, azken finean, azken urteetako joera ikusita, adinekoen kopurua goraka doala eta adingabekoen kopurua aldiz behera. Testuinguru horretan hurrengo helburua finkatzen du Foru Aldundiak bere plangintzan, zaintzeko eskubidea antolatzeke eta gozatzeko aurrerapausoak egitea, bizitza-zikloaren egoera ezberdinetan zainketa egokiak jasotzea eta elkar mendekotasunean oinarrituta, zainketak ematea edo ez ematea erabakitzeko eskubidea barne. Hau gauzatzeko helburu espezifikotan pertsonak zainketak zaintzaileen esplotazioen kontura ez egitea, zaintzaileen baldintza duinak eta hauei eskainitako arreta bermatzea, esaterako, atsedean hartu dezaten, estereotipoak haustea emakumeek ez dezaten eduki zaintzak egiteko “ardura faltsurik” eta foru aldundi barnean guztiz autonomia den eta arretarik behar ez duen langilearen irudiarekin haustea.

Zaintzaren sektoreko aipamenekin amaitzeko, zainketa profesionalen sektorean hitz egiten du plangintzak, eta helburutzat ezartzen du zaintza profesionalean lan egiten duten langileek baldintza duinak izan ditzatela, eta ildo horretatik, zaintzak eskainiko dituzten entitateak, ez dutela errentagarritasunik aterako lan baldintzak edo zerbitzuaren kalitatea degradatzearen kontura. Gaizki banatuta dauden zaintza lanak profesionalizatzea eta birbanatzea da helburua (GFA, 2012).

II.3. Zaintza lanen egoera

Atal honetan zaintza lanak ze egoeretan dauden aztertuko dugu Gipuzkoan eta EAEn, alde batetik, zaintza beharrean dauden pertsonen analisia egingo dugu beharrak zein eta nolakoak diren aztertzeke eta bestetik, gaur egun dauzkagun baliabideak aztertuko ditugu. Analisi hau lagungarri izango zaigu gero aztertuko ditugun zaintzaileen beharrak ulertzeke eta hauen lan baldintzak aztertzeke.


Mendekotasuna, izan ere, ez da salbuespen egoera bat edo istripu bat, gizaki guztion berezko ezaugarri bat baizik eta guztiok beharko dugu bizitzaren zati batean zein bestean zaintzaren bat. Alde batetik, mendekotasuna duten pertsonak ditugu, hau da, ezinduak eta helduak, eta bestetik, nahiz eta mendekotasuna ez eduki, haurrak, hauek zaintza jarraituak behar dituzte erabat autonomo izan arte. Haurren kasuan, zaintzeko ume gutxiago egonagatik gizartean ez da karga murriztu hainbat faktore medio, alde batetik, haurtzaroa luzatu egin da eta seme-alabak zaintzeko bete beharra urte

gehiagotan zehar ematen da, bestetik, gizartea antolatzeko moduak eta batez ere hiri ereduak zer ikusi handia dute, hirietako espazioen banaketan kaltetuak ateratzen direlako haur eta gazteak. European, haur eta gazteen %75 hirietan bizi da gaur egun. Zahartzaroa eta mendekotasunaren artean korrelazio zuzena egonagatik, batak ez du ezinbestean bestea inplikitzen eta pixkanaka helduak zaintzaile izatera pasa dira, familia moten aldaketarekin eta gaur egungo familia eredu txikiarekin aitona-amonek biloben zainketan duten ardura funtsezkoa da (Larrañaga & Jubeto, 2008).

II.3.1. EGOERAREN DIAGNOSTIKOA EAEN

Zaintzak jasotzeko beharra dutenen datuak aztertzerakoan, 115.559 pertsonak dituztela zaintza premiak eta hauetatik 77.580k eguneroko zaintza behar dutela ikus dezakegu autonomia erkidegoan, gainera, gehiengoa emakumeak dira gizonekin alderatuz, 49.488 eta 28.092 hurrenez hurren, %66,8a hain zuzen. Hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala, mendekotasuna duten gehienak 65 urtetik gorako emakumeak dira (Osasun Saila. Eusko jaurlaritzak, 2013).

1. grafikoa: Zaintza behar duten biztanleriaren banaketa EAEn



Iturria: Osasun Saila. Eusko jaurlaritzak (2013)

Mendekotasuna edukitzeko arriskuari dagokionez, emakumeek mendekotasun egoeran egoteko ia probabilitate bikoitza dute %6,9ko arriskua dutelako gizonen %3,6arekin alderatuz, gainera, emakumeek kasuan gehienetan alargunak izaten dira eta gizonen kasuan berriz ezkonduak (Osasun Saila. Eusko jaurlaritzak, 2013), bi ezaugarri hauek esplikatzen dituzten faktore nagusia emakumeen bizi itzaropena gizonekin alderatuz luzeagoa dela da. Ikasketak mailak eta klase sozialak (diru sarreraren arabera) ere badute eragina, klase eta ikasketak altuko biztanleek mendekotasun egoera jasateko probabilitate gutxiago dutelako (Osasun Saila. Eusko jaurlaritzak, 2013), esaterako,

unibertsitate ikasketak dituzten pertsonak, oinarrizko ikasketak dituztenenak baino lau aldiz probabilitate txikiagoa dute mendekotasun egoeran egoteko beraien bizitzaren amaieran.

Zaintzaileen eta hauen sektoreko datuei erreparatzen badiegu berriz, zerbitzuak dira feminizatuen dauden sektoreak, %57 emakumeak dira, oro har jende gehien biltzen duen sektorea izanik (langile guztien %69ak zerbitzuetan egiten du lan) (Emakunde, 2014). EAEn zaintzaren sektorea emakume gehien duen 5. Sektorea da (GFA, 2012) eta etorkinen kasuan zifra hau areagotu egiten da zerbitzuetako emakume etorkinen proportzioa %96,5eraino iritsiz, hauetatik zati handiena, %38,8, etxeko eta zaintza lanak izaki (Emakunde, 2014). Askotan, migratzaileen lanerako sarbide bakarrenetakoa da zaintzarena (langile guztien %40), batz besteko soldata 570€koa da hilean eta %82 a ez da soldata minimora iristen (GFA, 2012). Gainera, zerbitzuak publikoak izanagatik kudeaketa pribatua dute, eta ez da hitzarmen kolektiborik existitzen. Hau ez da kasualitatea, prekariedade eta zaurgarritasun handiko sektorea izanik zaintzena aukerarik gabeko etorkinak sektore honetan kokatzen dira, inork nahi ez dituen lanak, barne lanak kasu, burutzen, eta lehendik zeuden genero bereizketari, bereizketa etnikoa eta atzerriartasuna gehitzen (Emakunde, 2014).

Burujaetza ekonomikoa beharrezkoa da emakumeentzat autonomia eta negoziario boterea edukitzeko bai gizartean eta baita familia nukleoetan ere, baina hala ere nabaria da oraindik emakumeen eta gizonen arteko soldata ezberdintasuna, izan ere batz beste %24 gutxiago kobratzen dute emakumeek, eta desberdintasun hau are handiagoa da errenta apalenetan (%39) edo emakume etorkinen kasuan (Emakunde, 2014).

1. taula: Soldaten konparaketa sexuen artean

	DESGAITASUN GABEKO PERTSONAK		DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK	
	HILEKO SOLDATA GORDINA	HILEKO SOLDATA GARBIA	HILEKO SOLDATA GORDINA	HILEKO SOLDATA GARBIA
Emakumeak (16-64 urte)	1.478,7	1.191	1.437,2	1.202,6
Gizonak (16-64 urte)	1.906,8	1.485	1.595,8	1.325,6

Iturria: Emakunde (2014)

II.3.2. GIPIZKOAKO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

Nahiz eta azken urteetan lanak banatzeko berdintasunera bidean pausoak eman, Gipuzkoan oraindik ere urrun gaude zaintza lanak ekitatiboki banatzeetik (GFA, 2017), izan ere, ordaindutako lana egiten duten emakumeek, ordaindutako lana egiten duten gizonekin alderatuz batz beste 48 minutu

gehiago ematen dute mendekotasuna duten pertsonak zaintzen, haurren zainketaren kasuan zifra hau 90 minutukoa da. Eta nahiz eta desberdintasun hauek handiagoak izan helduagoen artean, hau da, desberdintasun handienak 60 urtetik gorako adin tartean izanagatik ere, eta horrela lan denborak berdintzeko joera bat ikusi badaiteke ere, ez du esan nahi gazteenen artean berdintasuna dagoenik, gainera, nahiz eta etxeko lanak banatzerako orduan berdintasunerako joera nabaria dagoen, ez da berdina gertatzen mendekotasuna duten pertsonen zaintza lanekin. Beraz, esan dezakegu emakumeen ikasketa mailaren igoerak eta lan munduan txertatzeak lan karga areagotu diela emakumeei, alor publikoan ardurak hartzeaz gain etxeko kargak ez zaizkielako arindu proportzio berean. Gaur egun oraindik ere rol banaketak eragin zuzena du familia ekonomia antolatzerako orduan, alde batetik, lanbide heziketako ikasketa segregazioan ikus dezakegu, industria eta automozio arloekin lotutako erdi mailako zikloetan ikasleen %90 gizonetzkoak dira eta aldiz zerbitzuekin lotutakoetan, bereziki turismoa, irudigintza eta jostintzan %80 emakumeak. Gainera, emakume eta gizonen lan ordainduaren desberdintasunek ere eragin nabarmena dute, soldatak bataz beste %25 baxuago direlako oraindik. Datu hauek aztertuta emakumeak lan mundu publikoan sartuagatik gizonak ez dituztela ardurak modu berean hartu adierazten digute eta baimenen inguruko datuek hau berresten dute, izan ere, gizonen %4,5ak bakarrik erabili zuten zegoen baimena 2014an mendekotasuna duen pertsonak zaintzeko, eta urte beteko haurrak zaintzeko eszedentzia guztien %17,8 bakarrik hartu zituzten gizonetzkoak (GFA, 2017).

Gipuzkoako gizarte behatokiaren (BEHAGI) arabera, 2017ko abenduaren 31an 28366 pertsona zeuden Gipuzkoan mendekotasun egoeran eta beste 7809 eguneroko laguntza beharrekin. Pertsona hauen %58a 80 urtetik gorakoa da. Zaintza zerbitzuen %80a, hain zuzen, 80 urtetik gorako biztanleek erabiltzen dute eta ondorioz korrelazio estua dago adin horretako populazioa eta zerbitzuen eskariaren artean, beraz, adierazle esanguratsua izan daiteke adin tarteara etorkizuneko eskaria kalkulatzeko. 2021. urterako, 754 pertsona gehiago egongo direla aurreikusten da mendekotasun egoeran eta 449 plazako defizita egongo dela (Behagi, 2018).


2018ko Gipuzkoako gizarte politiken memoriaren arabera, 63 egoitzetan 5293 plaza eskaini ziren adinekoentzat 2018. urtean, hauetatik %88a foru aldundiaren sare publikokoak eta gainontzekoak kontzertatuak. Horiez gain, 605 adineko daude aldundiaren tutoretzapean babesik gabeko egoeran aurkitzeagatik, modalitate ezberdinetan.

Etxez etxeko laguntza ere garrantzi handiko zerbitzua da, izan ere, 4.905 pertsona artatu ziren 2018. urtean, hauetatik 3.784 mendekotasun egoeran daudenak eta gainerakoak autonomiaz bizi direnak baina laguntza puntualak behar dituztenak.

Mota bateko ala besteko asistentzia behar duten pertsonak kontuan izanda, 29.371 pertsona artatu ziren 2018an Gipuzkoan. Ezin dira aipatu gabe utzi aldundiak dituen programa ezberdinak zahartzarora iritsi diren pertsonak edo

desgaitasun fisikoak dituztenak ahalik eta autonomia handienarekin bizitza aurrera eramaten laguntzeko sortuak, besteak beste, adinberri programa eta pasaiako erreferentziazko zentroa, bizitza independenterako sistema edo etxean bizi programa.

Sektore arteko soldaten konparaketa egiten badugu Gipuzkoan, laguntzaile geriatriko zaintzailea langile kategorია hartuz erreferentzia gisa, hau izanik zaintza langile gehienen kategoría, kualifikazio berdineko beste lanbide batzuekin, eta maila bereko Bizkaiako langileekin alderatzen badugu, 2. grafikoan ikus dezakegun bezala, alde batetik, zaintzaren sektoreko soldatak nabarmen baxuagoak direla beste sektoreekin alderatuz, bestetik, sektore feminizatuetako soldatak txikiagoak direla maskulinizatutakoak baino, eta azkenik, sektore pribatuko langileek gutxiago kobratzen dutela publikoan dihardutenekin alderatuz (Cidec, 2017).



Iturria: norberak moldatua, (Cidec, 2017)

Hala ere, sektoreko langileen egoerak prekarioa izaten jarraitzen du, sektoreko 4 langiletatik 3k ez dute sare publikoan lan egiten, hau da azpikontrataturako enpresetan egiten dute lan hitzarmenik gabe (Cidec, 2017). Negoziazioa kolektiboa aurrera atera nahian dabilta sindikatuak eta patronala (ELA Sindikatua, 2019), eta 2019an akordio batera iristeko bidean bazeuden ere negoziatioak hautsi ziren urte honetan, sektoreko enpresei ez zaielako interesatzen bertako langileen baldintzak hobetzea, zuzenean negoziatioaren errentagarritasuna murrizten delako. Izan ere, negoziatio guztiz errentagarria da sektorean kokaturako enpresentzat, alde batetik, diru publikoarekin finantzatzen delako oheen %90a, eta honi legezko ratio apalak eta langileen (batez ere emakumeen), lan baldintza xumeak gehituta, negoziatio errentagarri baten aurrean gaude, gainera, zaharren kopurua gora doan heinean, 2029an gizartearen herenak 65 urtetik gora edukitzea espero da, “bezero” gehiago

edukitzeko aukera ikusten dute. Koronabirusaren krisialdiaren aurretik 243 egun zihozen greban zaharren egoitzetako Gipuzkoako langileak, osasun krisia medio, erantzukizunez jokatzeko ari zirela esanez bertan behera utzi zuten grebari berriro ekitea aztertzen ari dira egoitzetako langileak, osasun egoerak ahalbidetzen duen heinean, egoiliarren ongizatea bermatzeko konpromisoarekin (www.argia.eus).

II.4. Zaintza informala edo ordaindu gabekoa EAEn

Zaintza informalaz hitz egitean ordaindu gabe egiten diren zaintzen multzoari buruz ari gara hizketan, aurreko ataletan ikusi dugun bezala, zaintza lan hauek, zaintza lan guztien zati esanguratsua hartzen dute eta zenbait kasutan ez da erreparatzen lan hauek gizartean eta zaintzaileetan duen eraginean. Atal honetan, zaintza lan hauen berezitasunak eta lan hauek duten eragina gizartean nahiz zaintzaileengan aztertuko dugu. Azterketa hau egiteko lagungarri izango zaigu osasun sailaren osasun inkesta, arreta berezia jartzen duelako mendekotasuna dutenen egoeran eta hauen zaintzetan, batetik, eta zaintzaileen ezaugarri soziodemografikoetan eta hauen osasun egoeran, bestetik.

Zaintza hauek emateari dagokionean, zaintza informalak gaur egun oraindik gizartea antolatzeke funtsezko faktorea dira EAEn. Autonomia erkidegoko osasunari buruzko inkestaren zaintza informalari buruzko azterketaren arabera (Osasun Saila. Eusko jaurlaritzak, 2013), zaintza modu orekatuan aurkitzen da eta ondorioz aukerako eredu baten aurrean gaude. Azterketa honen arabera hurrengoak dira modu horretan kalifikatzeko gure zaintza ereduak dituen ezaugarriak: “zaintzak emateko egoera orekatu samarra duelako, gizarte-zerbitzuen partaidetza handia delako, prestazio ekonomikoaren garapena handia delako eta kontratatutako zaintzaile ez-profesionalen presentzia nabarmena delako” (Osasun Saila. Eusko jaurlaritzak, 2013, 6. or.). Nahiz eta politikak berdintasun eta lan banaketa ekitatiborako bidean joan, sektoreak feminizatuta jarraitzen du eta bide luzea dago oraindik egiteko. Izan ere, zaintza informalek pisu nabarmena dute gaur egungo gizartean, ideia bat egiteko EUSTATen etxeko ordaindu gabeko lanen satelite kontuaren arabera, 2013an BPGaren %32,4ko balioa zuten ordaindu gabeko etxeko eta zaintza lanek EAEn, hau da, kontuan hartuko balitz lan bolumen hau BPGa kalkulatzekoan, autonomia erkidegoko BPGa ia herena gehiago izango litzateke (Osasun Saila. Eusko jaurlaritzak, 2013).

Zaintza lanak banatzerako orduan puntu adierazgarria da adingabekoena, eta nahiz eta aiten parte-hartzea areagotuz doan urtez urte, amek karga handiagoa dute oraindik umeen zaintzan, eta lan hauek banatzerako orduan ere desberdintasunak daude, izan ere, nahiz eta denboran ez izan desberdintasun hain handiak zaintzan pasatzen duten denboran, gizonezkoen lanak, oro har, atseginagoak edo/eta publikoagoak izaten dira (paseoak,

bainuak, jolasak...) emakumezkoenak baino (gehienak etxeko eremuan geratzen direnak). Aipatzekoa da adingabeak zaintzerakoan familia zabalak duen inplikazioa ere, batez ere aitona-amonon aldetik, hauetan batez ere amen amak arduratzen dira bilobak zaintzeaz eta EAEko aitona-amonen %45ak beraien bilobak maiz zaintzen dituztela aitortzen dute (Osasun Saila. Eusko jaurlaritzak, 2013).

Mendekotasuna duten pertsonak zaintzerako orduan berriz, zaintzaileen profil orokorra honakoa da; emakumea, ezkondua, lehen maila edo baxuagoko ikasketak dituen eta batzuetan beste 50 urte baina helduagoa. Gainera, kasu gehienetan alaba edo semearen ezkontidea izaten da eta eskusiboki etxeko lanak egiteaz arduratzen dena (Osasun Saila. Eusko jaurlaritzak, 2013).

II.4.1. ZAINZAILIEN EZAUGARRIAK

EAEan 17373 pertsonak ematen diete mendekotasuna duten pertsonen zaintza motaren bat, denborei dagokienean, gizonak batzuetan beste 22,7 ordu pasatzen dituzte astean zaintza informala ematen eta emakumeek 27,1 ordu, eta beraz, guztira autonomia erkidegoan 4367211,4 ordu inbertitzen dira. Zaintza hauen %54,7ak bizikideei, hau da, etxe berean bizi diren pertsonen ematen zaizkie eta %41,9ak ez bizikideei, gainerako %3,4ak bi motatako zaintzak ematen dituzte. Zaintzaileen erlazioari dagokionez, bizikideen artean erlazio ohikoena ezkontideena da eta ez bizikideen artean seme-alabak dira zaintza lanez arduratzen direnak. Mendekotasuna dutenak gizonak direnean emazteak zaintzea da ohikoena eta mendekoak emakumeak diren kasuan seme-alabek, hau logikoa da, emakumeak bizi itxaropen handiagoa dutenez, batzuetan beste, euren senarrak baino gehiago bizi direlako. Seme-alaben barnean ere desberdintasuna nabaria da genero artean, esaterako, eurekin bizi ez diren aita zaintzerako orduan alabek %66,6a zaintzen dute eta semeek %24,7ko kasuetan. Emakumeen adinari dagokienean, 60 eta 64 urte bitartekoak dira zaintzaile gehienak, gizonak aldiz gazteagoak dira, 50 eta 54 urte bitartean kokatzen da gehiengoa. Oro har, zaintzaileak batez ere emakumeak dira, ezkonduak eta ikasketen maila baxua daukatenak, nahiz eta gizonen kasuan zenbat eta ikasketen altuagoak izan gehiago parte hartzen duten lan hauetan (Osasun Saila. Eusko jaurlaritzak, 2013).

II.4.2. ERAGINAK ZAINZAILIEN ONGIZATEAN

Zaintza lanez zaintzaileen bizitza moldeetan eta hauen ongizatean eragin zuzena dute, eta ikusi dugun bezala, banatzerako orduan genero ezberdintasunak nabariak direnez, genero arteko ongizate ezberdintasunak sortzen dira, eta hain zuzen, desberdintasun hauek agerian uzten ditu osasun inkestak (Osasun Saila. Eusko jaurlaritzak, 2013). Zaintza lanean dihardutenek osasun mental, fisiko eta sozial kaskarragoa dute oro har eta lan kostuak ere garrantzitsuak dira, hau da, lana utzi edo murriztu behar izanaren aukera kostua, gainera eragin hauek elkarren artean lotuta daude eta zenbait kasutan bata bestearen eraginez izan daitezke. Hala ere, alde onak ere baditu zaintzaile izateak osasun ikuspegitik, izan ere, hazkuntza pertsonalean, balioen

transmisioan, erantzukizunean, maitasunean edo afektuan beste sektoreekin alderatuz balio hobek dituzte. Inkesta honen arabera, eta kontuan hartuta datuak osasunaren autobalorazioan oinarritzen direla, eta ondorioz, subjektiboak direla, zaintzaile ez direnek zaintzaileek baino osasun hobea dutela diote, gizonak emakumeek baino txarragoa dutela eta eguneroko zaintza ematen dutenek osasun txarragoa dutela deritzote aldizkako zaintzak ematen dituztenekin alderatuz. Osasun mentalari dagokionez, etxeko zaintzaileen herenak eta etxetik kanpokoan laurdenak antsietate edo depresio arazoren bat eduki dutela diote, hau biztanleriaren batz bestekoa baino handiagoa da. Sedentarismoari dagokionean, zaintza lanetan diharduten emakumeek bizitza sedentarioagoa dute zaintza lanetan ez dihardutenak baino, %40 eta %30 hurrenez hurren. Gizonen kasuan berriz alderantziz ematen da hau, zaintza lanetan diharduten gizonak jarduera fisiko gehiago egiten dute batz beste. Paradoxikoki, zaintzaileen egoerak txarrera egiten du lan hauek burutzen dituzten bitartean, beren burua zaintzeko ez dutelako denbora hartzen hain zuzen (Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza, 2013).

II.5. Ordaindutako zaintza lanak

Atal honetan, ordainpeko lanetan diharduten langileen egoera aztertuko dugu, lehenik, merkatua modu orokorrean ikusiz eta langile mota ezberdinen baldintzak aztertuz eta beraien artean konparatuz, eta ondoren, etxeko langile eta erresidentzietako langileen kasu berezietan arreta jarritz.


II.5.1. LAN MERKATUA

Soldatapean egindako zaintza lanak aztertzerako orduan, zailtasun nabarmenak daude azterketa argi bat egiteko, izan ere, nahasmen handia dago datuetan, batez ere, langileen zati handi bat gizarte segurantzaren alta eman gabe ari delako lanean (2016an %30a kalkulatu da estatu mailan (Civersity - EHU, 2019). Ildo horretatik, alde handia dago beraz gizarte segurantzako datuen eta BAI (Biztanleria Aktiboaren Inkesta) inkestaren artean, esaterako 2017an gizarte segurantzaren 424.395 pertsona zeuden alta emanda sektore honetan eta aitzitik BAI inkestaren arabera 617.400 langile ziren bertan zihardutenak, honen arabera, %68,7ak bakarrik zeukan tokatzen zitzaion gizarte segurantzako alta (Civersity - EHU, 2019). Errealitate honek, zati handi bat estatistiketatik kanpo geratzea dakar eta ondorioz datuen azterketa zehatz bat egitea konplikatu egiten da, horregatik, herrialde edo toki mailako azterketa zehatzak egitearen zailtasuna ikusita, tokian tokiko estatistika eta inkestek errealitatera hobeto doitzen den datuak emango dizkigute eta datu hauen izaera geografikoa mugatua bada ere lan merkatuaren ezaugarrien joera aztertzeko baliagarriak izango zaizkigu.

Lan baldintzei dagokienean, kasu askotan baldintza irregularretan egiten dute lan soldatapeko zaintzaileek, izan ere, Europako biztanleen %17ak zerbitzuak modu irregularrean erosi izana aitortzen du. Ikuskaritza kontrolen presio baxuak eta 18 ordutik beherako kontratuetan altan eman ezin ahal izateak egoera areago zailtzen dute (Larrañaga & Jubeto, 2008). Erregularri

kontratatu direnean ere baldintza txarretan egin behar dute lan langile hauen lana ez delako benetako lana kontsideratzen eta ondorioz baldintza desberdinak jasaten dituztelako, zenbait kasutan oraindik ere neskametzatza edo morrontzatza egoerak sortuz, beraz, prekarietatearen ideia oso zabaldua dagoela ikus dezakegu (Larrañaga & Jubeto, 2008). Azken urteetan aldaketak egon badira ere langile hauen gizarte segurantzako erregimenean, hauentzako onuragarriak izan diren aldaketekin, oraindik ere gizarte segurantzako erregimen berezia dute langile hauek, lan baldintza diskriminatzaileekin (EMAKUNDE, 2019). Hasteko, familia-etxeke zerbitzuan lan egiten duten langileek ez daukate langabezia prestazioa kobratzeko eskubiderik lanik gabe geratzen direnean, eta gainera, lan istripu edo gaixotasunagatik baja hartu behar dutenean, lehenengo hiru egunak ez dituzte kobratzen eta 4. egunetik 20. egunera %60a bakarrik kobratzen dute, eta hortik aurrera %75a. Amatasunaren kasuan bai, prestazioa %100ekoa da (EMAKUNDE, 2019). Aurrerapauso nabarmenak eman dira langileen eskubideetan, 2012. urteko lege aldaketaren aurretik bajako lehen 28 egunetan ez baitzuten prestaziorik kobratzen etxeetako langileek (Larrañaga & Jubeto, 2008). Hain zuzen, hurrengo grafikoan ikusiko dugun bezala, urte hori inflexio puntua izan zen eta ordutik hona alta kopurua igo da, nahiz eta oraindik alde handia dagoen landunen (Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera) eta afiliatuak (Gizarte Segurantzaren arabera) (EMAKUNDE, 2019).

3. grafikoa: Etxeko enplegatu landunak (BAI) eta pertsona afiliatuak (Gizarte Segurantza)




iturria: EMKUNDE (2019)

EAEEn, 10.965 langile zeuden 2017an kontratatuta lanbideren arabera etxe eta familiako lanak egiteko, hauetatik %95.6a emakumeak. Zifra hau Eustatek lan merkatuaren erroldan ateratakoarekin alderatzen badugu, aldea nabarmena dela ikus dezakegu, 2013an (eskuragarri dagoen azken datua) 29.383 pertsona zeuden eta etxe zerbitzuan lanean.


2011. urtean, Eusko Jaurlaritzako enplegu eta gizarte gaietako sailak Append erakundeari agindu zion lan merkatu honen inguruko azterketa egiteko, bertan 6000 etxebizitzetan egindako inkesta bat medio, gaur egunerarte egindako azterketa zabalenetakoa, eta ondorioz, objektiboenetakoa dela esan dezakegu. Hau aurrez aurre jartzen badugu Espainiako enpleguaren zerbitzu publikoak (SEPE) emandako kotizatzaile eta enplegatzaile datuekin, legalki egiten den atal hori izebergaren muturra besterik ez dela ikus dezakegu, hurrengo irudian ikus dezakegun bezala.

4. grafikoa: Etxeko enpleguaren izozmendia: etxeen ikuspegia



Iturria: Civersity - EHU (2019)

5. grafikoa: Etxeko enpleguaren izozmendia: langileen ikuspegia



Iturria: Civiversity - EHU (2019)

Sektore feminizatua dela ikus dezakegu, etxeko langileen %77 emakumeak dira eta etxez etxeko zerbitzuan %93. Eta nahiz eta kalkulu zehatza egitea oso zaila den merkatuko irregulartasunak medio, estatistikek ideia bat egiteko balio digute, gainera, pentsatzekoa da emakume hauen batz besteko adina ikusita beraien etxeetan ere lan karga izango dutela (Larrañaga & Jubeto, 2008).

Soldata eta lan baldintzei dagokienez, legeari erreparatuz gutxieneko soldata lanbide arteko soldata minimoa dela ikus dezakegu (EMAKUNDE, 2019), baina zenbateko hau ez da errealitatera doitzen, izan ere, sektore honetako emakumeen soldatak batz bestekoaren ia erdia dira (%53), eta gizonak gehiago kobratzen dute gutxiengoa izanik lan hauetan (Larrañaga & Jubeto, 2008). Aparteko orduen kopurua ere esanguratsua da, gizonak 7,4 mila ordu sartzen dituzte astean, guztiak ordainduta eta emakumeek berriz 69,6 mila ordu ordainduta eta beste 27,1 mila ordu ordaindu gabe (Larrañaga & Jubeto, 2008).

Historikoki etxeko langileak edukitzearen kontua klase kontua izan bada ere, joera aldatzen doa familia eta bizitza ereduak aldatzen doazen heinean, batez ere klase ertaina deritzonak laguntza behar duelako zaintza lanak burutzeko emakumea lan munduan txertatzearekin lotuta, familiek denbora gutxiago dutelako zaintzarako eta aldi berean eros ahalmena handitzen zaiolako emakumearen soldatari esker, senitartekoen laguntza eta familiako bizitza zikloaren momentua faktore erabakigarriak izango dira familiek laguntza beharko duten ala ez jakiteko (Larrañaga & Jubeto, 2008).

Nahiz eta emakumeak izan kasu gehienetan zaintza langileak, ikusi dugun bezala, ezberdintasun nabarmenak daude etorkinen eta bertakoen artean,

batez ere egoera sozial eta familiarretan. Hasteko, nabarmentzekoa da gizarte segurantzaren alta emandakoen %52a Europar Batasunean jatorria ez duten atzerritarrek direla, eta beraz, immigranteen pisua sektorean benetan esanguratsua dela honek dakarren etnizazio arriskuarekin. Kalkulatzen da EAEn langileen %33ak bakarrik duela alta gizarte segurantzaren, atzerritarren kasuan altuagoa da zenbateko hau eta baxuagoa bertakoen kasuan, %37 eta %24 hurrenez hurren. Legalizatuta ez dauden langileen artean, arrazoiak ordea oso ezberdinak dira gizarte segurantzaren izena emanda ez egoteko, atzerritarren kasuan, alarik ez duten langileen %96ak dio ezin duela alarik eduki egoera irregularrean daudelako, bertakoen kasuan berriz, %40ari ez zaio interesatzen kontratua edukitzea (gizonaren gizarte segurantzaren daukatelako eta modu horretan errentagarriagoa zaielako) eta %32ak berriz ez dutela nagusiarekin horretaz hitz egin dio (Larrañaga & Jubeto, 2008).

Langile profila ere oso ezberdinak dira atzerritarren eta bertakoen artean, atzerritarren kasuan, batik bat seme labak izaten dituzte eta hauek eduki eta hazteko adinean egoten dira, eta hemen baldintza prekarioetan lanean dabiltzan bitartean beraien jatorrizko herrialdean seme-alabak beste emakume batzuen zaintzapean utzi behar izaten dituzte (Emakunde, 2014). Bertakoak berriz, gazteak, helduak ala seme-alabarik gabekoak izaten dira. Atzerritarren %79ak 2. mailako edo unibertsitateko ikasketak dituzte eta bertakoen kasuan proportzio hau %44koa da (Larrañaga & Jubeto, 2008). Langile hauen %37ak egunero eta egun osoz egiten du lan, hau da, zaintza intentsiboa egiten dute (Larrañaga & Jubeto, 2008). Zaintza intentsiboak mendekotasuna duten pertsonen %43ak behar dituela kalkulatzen da eta zaintzaile bakarra arduratzen den kasuetan ondorioak izaten ditu zaintzailearentzat, %63ari familia bizitzan eta aisialdian eragiten dio, %43ari osasunean eta %40ari ondorio profesionalak ekartzen dizkio. Hala ere, langile hauen %73ak ez duela laguntza osagarri behar dio. Barne lanetan dabiltzan langile hauek, ia amaierarik gabeko lanaldiak dituzte, %85ak egunean 10 ordu gora egiten du lan, %62ak asteburuan ere lan egin behar du eta %73ak 36 ordu baino gutxiago ditu aisialdirako astean. Hau horrela izanik ere soldata 571€ eta 770€ artekoa da batz bestea (Larrañaga & Jubeto, 2008).

BAren arabera, etxeko eta zaintza langileen %63,1a etorkinak ziren 2017an (EMAKUNDE, 2019).

EAEn ere etxeko eta zaintza lanak etorkinen nitxo nagusia direla ikus dezakegu, batetik, afiliazioen %38 sektore honetan atzerritarrek zirela ikus dezakegu 2017an. Bestetik, 2014an, emakume etorkinen %50,2ak etxeko lanetan ziharduen, hau da, emakume etorkinen erdiak sektore horretan egiten du lan.

II.5.1.1. ETXEETAKO BARNE ETA KANPO LANGILEAK

Etxeko lanez ari garenean, mota ezberdinetako lan eta langileak aurkitzen ditugu, hasi etxez etxeko zerbitzuan diharduten langileetatik, hau da, etxe bakoitzean ordu batzuk egiten dituzten langileetatik, lantoki bat baina gehiago pasatuz, barne langileetaraino, hau da, etxean lanaldi osoan lana egin ez ezik, bizitoki berdinean lo egin eta ordutegi zabalean zereginak betetzen egon behar dutenetaraino, tartean aurki ditzakegun errealitate guztietatik pasatuz. Atal honetan, errealitate ezberdinak bereizten, hauetako bakoitzaren lan baldintzak aztertzen eta sektore honen argazkia egiten saiatuko gara.

Horretarako, lehenik, barne eta kanpo langileen arteko desberdintasunak aztertuko ditugu, lan baldintzei dagokienean. Hurrengo taulan ikus dezakegun moduan, batz besterik lanaldi erdia baina apur bat gehiago egiten dute kanpo langileek. Barne langileek berriz, astean 64,74 ordu sartzen dituzte batz besterik. Ordainsariei dagokienean, ikus dezakegu barne langileen soldata ez dela iristen gutxiengo soldatara, eta orduko kobratzen duten soldata batz besterik ez dela 4€ra iristen. Nazionalitateari erreparatzen badiogu, ikus dezakegu Espainiarrek, oro har, lanaldi murrizagoak dituztela Espainiarrak ez direnek baino, eta orduko soldata altuagoa daukatela bertakoek batz besterik, langileria osoarekin alderatuz.

2. taula: Etxeko langileek egindako lan orduak eta jasotako soldatak batz besterik EAEn

	Orduak astean	Ordainsaria orduko	Ordainsaria hilabeteko
Kanpo-langilea	21.77	7.61€	552.90€
Barne-langilea	64.74	3.84€	816.70€
Espainiarra	19.53	8.01€	502.46€
Atzerrikoa	35.56	6.09€	698.81€

Iturria: Civersity - EHU (2019), norberak moldatua

ELEk (etxeko langileen elkarteak) 2019. Urtean Bilbon egindako estatistika txostenaren arabera, bereziki egoera prekarioa daukate etxe barneko langileek, noski, gehiengo emakumeak (%97,61) eta etorkinak (%87,48). Hain zuzen, txosten honen arabera, barneko langileen artean, %68,09k bakarrik dauka gizarte aseguru eta %31,18 ez dira iristen lanbide arteko gutxiengo soldatara. Kontuan izanik beti ere, soldata hau astean 40 orduren truke dela eta %80,95ek astean 60 ordu baino gehiago egiten dutela lan astean. Euskal familia eta familia-etxeen inkestaren arabera 6.213 langile daude barne lanetan EAEn (EMAKUNDE, 2019).

Sektore honetako lanaren beste berezitasunetako bat presentzia orduak dira, hau da, langileak lantokian egon behar du eskuragarri baina ez da lan ordu bezala kontabilizatzen eta ordu hauetan langilearen jardura ahalegin gutxiko

zereginetara mugatzen da, esaterako, atea ireki edo telefonoa hartu. Ordu hauen funtzioa langilea mendekotasuna duen pertsonarekin egotea da ezbeharren bat gertatuz gero artatu ahal izateko. Legez, astean 20 orduko maximoa jartzen badu ere legeak, eta adierazi lan ordu arruntan moduan kobratu behar direla (EMAKUNDE, 2019), errealitatean ikus dezakegu hau ez dela horrela. Hurrengo taulan barne langileek bataz beste egindako orduak ikus ditzakegu.

3. taula: Barne langileen banaketa astean egindako lan orduen arabera

Asteko orduak	Langileen ehunekoa
40 edo gutxiago	%3.06
41-50	%1.36
51-60	%14.62
61-70	%23.81
71-80	%26.19
81-90	%19.39
91 edo gehiago	%11.56

Iturria: ATH-ELE (2019), norberak moldatua

Datu hauen arabera, ikus dezakegu nahiz eta aipatu bezala 60 orduetik gora lantegian pasatzea legez kanpoko izan, langileen %80ak baina gehiagok 61 orduetik gorako lanaldia daukala.

Atsedendialari dagokionez, ikus dezakegu langileen %80,95ak bi ordu edo gutxiagoko atseden hartzen duela egunean, eta %26,97ak bakarrik daukala 36 ordu edo gehiagoko atsedenaldia astean.

4. taula: Barne langileen atsedenaldiak

Eguneko atsedenaldia		Asteko atsedenaldia	
Atsedunik ez	%24.83	Atsedunik ez	%23.36
2 orduetik behera	%2.72	24 ordu jarraian ez	%25.33
2 ordu	%53.40	36 ordu jarraian ez	%24.34
2 ordu baino gehiago	%19.05	36 ordu baina gehiago	%26.97

Iturria: ATH-ELE (2019), norberak moldatua

Barne langileen %96.38a ez da lanbide arteko gutxieneko soldatara iristen lanaldiarekin erlazioan, eta gainera, ikus dezakegu irregularren kasuan soldatak kaxkarragoak direla (ATH-ELE, 2019).

II.5.1.2. ERRESIDENTZIAK

Erresidentzietako lan baldintzei buruzko atal honetan, hauetako langileen egoera aztertuko dugu, bai gaur egun duten egoera eta baita bilakaera historikoa ere. Aurreko ataletan ikusi dugu, zaintzaren inguruan orohar datuak bilatzea oso zaila dela, ez dagoelako ikerketa gehiegi sektorearen inguruan, baina erresidentzietako langileen kasuan oraindik murrizagoak dira dauden

ikerketak eta ondorioz datu fidagarri eta esanguratsuak aurkitzea ez da erraza. Horregatik, sektore honetako datuak lortzeko zailtasunak ikusita, iturri ezberdinak kontsultatzeaz gain elkarrizketa batean oinarrituko dut atala, tresna honen bidez erresidentzietako errealitatea gertutik ezagutzen duen baten bizipena zuzenean aztertu dezakegulako.

Azken urteetan, langileen lan baldintzetan aldaketa sakonak jasan dituen sektore baten aurrean gaude, izan ere, 2001. urtean estatuko hitzarmenak jarritako 611,37€ak kobratzetik (Irureta, 2019) gerokultore lanetan lan egiteagatik, batz bestea, Gipuzkoan 1454€ eta Bizkaian 1320€ kobratzera pasa dira langileak 2015. urterako lan berdinegatik (Cidec, 2017). Nahiz eta prekaritatea egunerokotasunean duen sektore bat izaten jarraitzen duen erresidentzietako langileenak (Irureta, 2019). Aldaketa honetan, erabakigarriak izan dira, alde batetik, 2007ko krisiaren ondorioz familia askotan bizitako egoerak, zeinetan soldata bakarra emakume zaintzaileek eramaten zuten etxera, ordura arte gizonaren soldataren gehigarri gisa ulertzen zena zenbait kasutan, eta lanbide honetan sartu diren zenbait gazteren inizatibak, soldata horien truke bizi proiektu bat aurrera eramateko ezintasunaren aurrean. Honek guztiak prozesu bat ireki zuen, protesta eta greba mugimendu ezberdinekin, pixkanaka baldintza hobek lortzeko bai ordainsarrietan eta baita beste esparruetan ere (Irureta, 2019).

Elkarrizketarekin sartuta, elkarrizketatuak, esperientzia zabala du erresidentzietan lanean, erizain ikasketak burutu bitartean erresidentzia batean egin zuen lan gerokultora moduan 6 urtez, eta gaur egun ere mundu hau gertutik ezagutzen du izan ere erizain bezala dihardu gaur egun beste erresidentzia batean. Nabarmenezkoa da, leku ezberdinetan lan eginda, guztietan gutxienez %80 emakumeak direla aipatzen duela, eta nahiz eta gero eta gizonezko gehiago ikusi mota honetako lanak egiten, nabarmen gutxiengoa direla hauek.

Lan kargari buruz hitz egitean, zeregin ugari burutu behar dituztela eta lan karga nabaria dela azpimarratzen du, zeregin hauen artean, egoiliarak jaiki, dutxatu, paseoak eta mobilizazioak, komunera laguntza, gosaria, hamaiketako eta bazkaria eman, eta siestara oheratzea dira nagusiak goizetan. Arratsaldeetan berriz, siestatik jaiki, merienda eman, paseoak eta mobilizazioak, afaria eman eta oheratu. Lan hauez gain medikazioa banatzea ere beraien ardurara zela azpimarratzen du. 6 ordu edo gutxiagoko txandetan atsedenerako eskubiderik ez zutela nabarmendu du eta hortik gorako txandetan 20 minutu soilik, beraz lan karga oso handia zela dio. Ratioei buruz galdetzean, erresidentzia bakoitzean desberdinak direla dio, gerokultora bezala lan egin zuenean kasu, 20 egoiliarreko bi langile zeudela dio aurreko zeregin guztiak egiteko, eta langile gehigarri bat dutxako lehenengo bi orduetan errefortzu modura.

Kontratuei buruz hitz egitean, ordutegien ezegonkortasuna aipatzen du lehenik, deskonpentsazio handia dagoela urteko ordutegian eta batzuetan

goizeko errefortzua soilik egiten zutela eta besteetan berriz txanda bikoitza (errefortzua+arratsaldeko txanda), aste batzuetan 60 ordu lan eginez eta besteetan 20 baina gutxiago. Berak eduki dituen kontratu guztiak aldi baterakoak izan direla dio, luzeenak 5 hilabete ingurukoak lankideen udako oporrak betetzeko, alde handia dagoela iruditzen zaio zuzeneko langileen eta aldi baterako enpresen bidez (ETT deiturikoak) egindakoen artean, proportzioari dagokionez %50ean banatzen direla iruditzen zaio, hau da, langile finko bakoitzeko aldi baterako langile bat dagoela kontratatuta. Aldi baterako kontratu hauekin, 150 ordu sartuta hilabetean gutxi gora bera 1500€ra iristen dela dio, hor sartuta daudelarik ezohiko ordainsari, opor eta jaiegunen parte proportzionalen ordainketak, baita igande eta jai egunetan lan egiteagatik orduko 2€ko gehigarria ere.

Azkenik, gaur egun bizi dugun osasun larrialdiari buruz eta 2020ko martxoan COVID19ak eragindako olatua nola bizi izan zuten galdetzean honakoa erantzun du hitzez hitz:

“Lan karga handia suposatu du bai fisiko eta mentalki. Ordu gehiago sartu ditugu, baja gehiago egon dira betetzeko, lan karga handiagoa izan da zentzu guztietan, paziente gehiago, neurri gehiago hartzeak, proba gehiago egin behar izateak, estresa, jai egunik ez, presio soziala eta abar luze bat. Osasun langile asko kutsatu dira, ni barne. Nire kasuan asintomatiko pasa nuen baina lankide asko ikusi ditut lanean COVID19 hartu eta oso gaizki pasa dutenak, ospitalean ingresatzeraino. Gainera, berragertzeen kontuak ere gora egin du eta berriz ere hasieratik hastea bezala da. Oso gogorra izan da egoera jasatea eta oraindik ere ala ari da izaten. Izan ere, jendea bakarrik hiltzen ikusi dugu, ospitaleak beteta, oherik gabe, jendea sufritzen, familiak gaizki pasatzen, intubazioak, heriotzak, eta dena bakarrik, inor ondoan izan gabe, gu bakarrik ginen pazienteekin egoteko aukera zutenak. Horrek nolabaiteko afekzioa eragiten dizu mentalki, egoera hori egunero ikusi behar izateak hilabetez oso gogorra izanda. Gainera, gauza hauek ikusita zure ingurukoei berdina gerta dakiekeela pentsatzen duzu eta horrek beldurra ematen dizu. Nire kasuan etxean arrisku handiko pertsonak bizi dira, eta nik beste etxe batean igaro arren denbora hau, ahizpa ere osasun langilea da eta beraz, biok gurasoak kutsatzeko beldurrarekin gaude. Zahar egoitzari dagokionez, 8-9 erizain laguntzaile kutsatu ziren, erizaina ni bakarrik. Ez genuen NBE-rik (norbera babesteko ekipamendua), eta beraz, COVID19 hartzea askoz ere errazagoa zen, segurtasun neurriak hartuta ere, ez baitziren egokienak. Erresidentziaren kasuan, COVID19 positibo guztiak solairu berean jarri genituen, eta bertan lan egiten zuen pertsonala, beti berdina zen, arriskua gutxitzeko. Bideodeiak egiten genituen familiarrekin, bisitak debekatuak baitzeuden, eta horrek ere lan karga handitu zuen, ondorioz atentzioaren kalitatea gutxituz. Honek iraun zuen bitartean egunero dei pila bat jasotzen genituen, eta guztiak artatzeko ahaleginean estres maila askoz ere handiagoa izan zen. Faktore eduki

ditugu aurka eta egoera berrira egokitzea asko kosta zitzaigun” (Murillo, 2020).

III. Ondorioak

Atal honetan, lanaren hasieran finkatutako helburu ezberdinei erantzuna emango diegu, puntuz puntu helburuak erreparaturik, bakoitzean atera ditugun ondorioak aztertuz horrela lanaren ikuspegi orokor bat izateko.

Emakumeen lanak orokorrean eta zaintza lanek zehazki egin duten bilakaera eta gaur egun duten egoera aztertzerakoan, zaintza lanak emakumeen esku utzi direla historian zehar eta gaur egun oraindik ere hauen esku uzten direla ikus dezakegu, eta lan hauei ez zaiela ia baliorik ematen, bizitzaren jasagarritasunerako oinarrizkoak diren arren. Gainera, lan hauek ez direla diruz ordaintzen hein handi batean ikus dezakegu, gainerako lanek ordainsaria dutenean. Gizarte bezala arazo bikoitza ikuste dugu hemen, oinarrizko lanei ez diegu baliorik ematen eta hauek emakumeen esku uzten ditugu, bai emakumeak eta bai zaintza lanak gutxietsiz.

Historikoki pentsamolde ezberdinek izan duten ikuspuntua aztertzerako orduan, ikus dezakegu, pentsaera jakin bateko pentsalariek bakarrik aztertu dutela sakonean gaia, eta pentsamolde ezberdinetako posizioak kontrajarriak ez ezik, zenbait eskolatako, batez ere ikuspuntu neoklasikoko autoreek, ez dute aipamenik ia egiten lan hauen inguruan, honela, lan hauek egiten duten ekarpena estaliz.

Generoen artean lanak nola banatu diren aztertzean, rol bereizketa gizartean oso nabarmena izan dela eta gaur egun ere garrantzia nabarmena duela ikus dezakegu, genero berdintasun indizea bezalako adierazleei erreparaturik, botere ekonomikoaren indize hau %34koa zen 2012. urtean EAEn (EUSTAT). Gainera, emakumeak alor publikoan lan egiten hasteak ez du suposatu etxeetako karga gizonekin maila berean partekatzea, zaintzen karga berriz ere emakumeen esku geratuz, eta hauen karga areagotuz.

Zaintza lanek gure gizartean duten posizioa aztertzerako orduan, Zaintzaren krisia eta emakumeen egoera prekariora bi arazo direla ikusten dugu, eskutik doazenak. Pobrezia eragiten duten faktore anitzen artean, esaterako, arraza, klase soziala edo kokapen geografikoa, emakume izateak egoera prekariora izatea suposatzen du, izan ere, pobrezia zuzenean lotuta dago zaintzen karga handiago batekin, hau argi ikusten da estatuko emakumeen pobrezia tasari erreparatzen badiogu, izan ere bizitza produktiboan dauden emakumeen %23a pobrezia egoeran bizi da (INE, 2017). Kasu askotan kontabilizazioa balorazioarekin nahasten da, lan hauek balioztatzeke, zenbait kasutan, lanak kontabilizatzen tematzen gara, eta hau tresna oso praktikoa den arren zaintza lanei ikusgarritasuna emateko, zaintza erdigunean jartzeko gainerako bideak ere interesgarriak dira, hau da, lanak ekonomikoki balioztatzeaz gain, sozialki ere balioa eman behar zaio, zaintza eredia eztabaidan jarriz, zaintzen beharra, gizakion ezaugarri moduan hartuta, nola kudeatu dago jokoan. Orain arteko ereduarekin jarraitu daiteke, hau da, karga gutxi batzuen esku utzi, infrabaloratutako ordainsarien truke egoera

prekarioan emakumeen esku utziz, edo guztion ongizatea bermatuko duen eredu kolektiboago baten alde egin. Izan ere, jasangarritasuna da gakoa munduan berdintasuna lortzeko, berdintasuna zentzun zabalean, bizitza erdigunean jarriz gure burua eta inguratzen gaituena zainduz, zaintzaren beharra eta interdependentzia onartuz, jasangarritasun ekonomiko, ekologiko eta soziala lortuz, eta interdependentzia onartuz, zaintzen beharra azpimarratuz ongizatea bermatzeko tresna bezala.

Euskal Autonomia Erkidego eta Gipuzkoa mailan menpekotasuna duten pertsonen zaintza lanek duten egoera aztertzerako orduan, lehenik, informazioa lortzea ez dela batere erraza ikus dezakegu, eta dauden lanketa gutxiak ez direla zehatzak, kontraesankorrak direla edo motz gelditzen direla ikus dezakegu. Hortik, errealitatean, lan kantitate esanguratsu bat dagoela ikus dezakegu zaintza lanen inguruan, zati handi batean ez dena kontabilizatu ere egiten, honek dituen ondorioekin.

Legedi eta gobernu plangintza ezberdinak aztertzerako orduan, hauek aurrerapauso nabarmenak eman arren azken hamarkadetan, oraindik ez dira gai sektorearen benetako arazoei erantzun eraginkor bat emateko, eta nahiz eta kasu askotan dokumentu ezberdinek konpromisoak hartu egoera hobetzeko ikus daiteke errealitatean ez direla hobekuntza hauek islatzen. Gobernuen konpromiso irmoa beharrezkoa da sektoreko arazoei behin betiko irtenbide bat emateko, legeak eta plangintzak egokitzetik hasi eta gero hauek betetzeraino.

Egoeraren diagnostikoa egiterako orduan, ikus dezakegu, emakumeak direla zaintza lanez gehien arduratzen direnak, eta aldi berean, menpekotasun egoera pairatzeko probabilitate altuagoa dute gizonen baino, esaterako EAEn 49.488 emakumek dituzte zaintza premiak, behar berdinak dituzten 28.092 gizonekin alderatuz. Kasu gehienetan, gainera, emakume zaurgarrienak dira baldintza txarrenetan zaintza lanak egin behar dituztenak, kasu askotan, lan mundurako sarbide bakarra izanik lan prekario hauek.

Zaintzaile motak aztertzean berriz, zaintza informalek pisu nabarmena daukatela ikus daiteke, eta kasu askotan, emakume bakar batek hartu behar izaten duela menpekoaren ardura ia osorik. Zaintzaile informalak kasu askotan babesik gabe aurkitzen dira beraien eguneroko lan kargari aurre egin ezin diotelako, beharrezkoa da zaintzaileak zaintzeko zaintza sareak osatzea, lan karga jende gehiagoren artean banatuz eramangarri eta atsegin egiteko. Zaintzaile formalen kasuan berriz, lanpostuak, orohar, oso prekarioak dira, ez soldatan bakarrik, estabilitate faltak eta ordutegi desorekatuek ere merma handia egiten dute langile hauen ongizatean, zainketa duinak eskaini ahal izateko beharrezkoa da zaintzaileen ongizate fisiko eta mentala bermatzea, eta horretarako, beharrezkoa da lan baldintza duinak bermatzea, soldata minimoak eta atseden orduak errespetatuz besteak beste.

COVID19aren krisiak ere eragin zuzena izan du zaintzaileen eta zainduak izan behar dutenen ongizatean, elkarrizketa egitean ikusi ahal izan dugun bezala. Alde batetik, elkarrizketatuak azaldu digun bezala, zaintzaileak babesik gabe

geratu dira eta aurretik zituzten egoera prekarioak are kritikoago bihurtu dira, arrisku handiko lanak burutuz, karga handiagoa hartuz beraien gain, lan egoera ez regulatuetan diru sarrerak galduz, kontziliazio arazoak jasanez etab. Eta bestetik, mendekotasuna duten pertsonak ere zuzenean jasan dituzte egoera prekarioaren ondorioak, zahar etxeetan birusa hartuz, beraien egunerokotasuna goitik bera aldatuz, familiakoekin harremana galduz, gaixotasuna bakardadean pasaz etab. Lehendik argia zen prekaritatea eta baldintza ez guztiz egokiak oraindik eta gehiago azaleratu dira egoera honekin.

IV. Bibliografia

- Anzorena, C. C. (2009). El ¿retorno? del "tratado sobre la familia" de Gary Becker. *Kairos. Revista de temas sociales. Universidad nacional de San Luís*.
- ATH-ELE. (2019). *Estadísticas 2019*.
- Becker, G. (1987). *Tratado sobre la familia*.
- Behagi. (2018). *Gipuzkoako gizarte zerbitzuen mapa*. Gipuzkoako gizarte behatokia.
- Benería, L. (2006). Trabajo productivo/reproductivo, pobreza y políticas de conciliación. *Universidad Central N°24*.
- Benería, L., & Roldán, M. (1987). *the Crossroads of Class an Gender. the universiti of Chicago Press*.
- BOE. (15 de 12 de 2006). *Dependentziaren legea 39/2006*. Madril.
- BOE. (2007). *Berdintasunaren legea 3/2007*.
- Carrasco, C. (2006). *La economía feminista: una apuesta por otra economía*.
- Carrasco, C., Borderías, C., & Torns, T. (2011). *El trabajo de cuidados: historia teoria y politicas*. catarata.
- Castaño, C. (1999). *Política y sociedad*. Madrid: Universidad complutense de Madrid.
- Cidec. (2017). *Gizarte zerbitzuetako enpleguari buruzko txostena*.
- Civersity - EHU. (2019). *Egoera-diagnostikoa: euskal autonomia erkidegoko etxeko langileak eta estaltzen dituzten beharrizanak*.
- Desazkunde eta bizitze ona V. topaketetan "errebindikazio eta alternatiba kolektiboak" erakunde sarea. (2016). *euskal herria kolektibotasunean eraiki*.
- EHA. (2005). 4/2005 Berdintasunerako legea. *42 Zk*.
- EHA. (2008). 13/2008 Legea.
- ELA Sindikatua. (2019). *www.ela.eus*. Obtenido de <https://www.ela.eus/eu/gizalan/albisteak/gipuzkoako-foru-aldundiak-patronalekin-heldutako-hastapen-akordioa-blokeatu-eta-gipuzkoako-5-000tik-gora-langileen-lan-baldintzak-prekarizatzearen-aldeko-apustua-egiten-du>
- Emakunde. (2014). *generoaren arabera eraginaren ebaluazioa enpleguaren esparruan*. Emakumearen euskal erakunde.

- EMAKUNDE. (2018). *EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. plana*. Eusko Jaurlaritza.
- EMAKUNDE. (2019). *Familia-etxez erbitzuan diharduten langileen oinarrizkoa araudia*.
- Ezquerro, M. (2018). Repensar el mundo de cuidados. *Dossieres Economistas sin fronteras*.
- FITEQA-CCOO. (1999). *Conciliación de la vida familiar y laboral. Presentación y comentarios de la ley 39/1999, de 5 de noviembre*. FITEQA-CCOO.
- GAO. (2015). 2/2015 Gizon eta emakumeen berdintasunerako legea. Gipuzkoako foru aldundia.
- GFA. (2012). *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. foru plana 2012-2020*. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- GFA. (2017). *Gipuzkoako kontziliazio erantzunkiderako I. foru plana*.
- Gipuzkoako foru aldundia. (2018). *Gipuzkoako gizarte politiken memoria*. GFA.
- Herrero, Y. (2011). Propuestas ecofeministas para un sistema cargado de deudas. *Revista de Economía crítica N°13*.
- Irureta, O. (2019). *Berdea da more berria*. Komunikazio biziagoa SAL & Manu Arangiz fundazioa.
- Larrañaga, M., & Jubeto, Y. (2008). Ordaindutako zaintza lanen inguruko hausnarketa: EAEko kasua. *Lan harremanak/18*.
- Larrañaga, M., & Martínez, E. (2017). Desigualdades económicas de género en la comunidad del País vasco. *Ekonomiaz N° 91*.
- Legarreta, M., & Sagastizabal, M. (2018). Haciendo visible el trabajo invisibilizado (que no invisible): Las encuestas de usos de tiempo. *economía feminista: visivilizar lo invisible*, 29. zbkia. 25-29orr.
- Marx, K., & Engels, F. (1948). *Alderdi komunistaren manifestua*. Londres.
- Murillo, M. (13 de 08 de 2020). Erresidentzietako langileen egoera eta lan baldintzei buruzko elkarrizketa. (J. Mokoroa Garmendia, Entrevistador)
- NBE. (2018). *La agenda 2030 y los objetivos de desarrollo sostenible*.
- OIT, O. i. (2018). *El trabajo de cuidados y los trabajadores del cuidado para un futuro con trabajo decente*. Ginebra: servicio de género, igualdad y diversidad- Departamento de condiciones de trabajo e igualdad.
- Osasun Saila. Eusko jaurlaritza. (2013). *zaintza informala Euskal Autonomi Erkidegoan*.
- Oxfam. (2020). *Tiempo para el cuidado- El trabajo de cuidados y la crisis global de la desigualdad*. www.oxfam.org.

Pérez Orozco, A. (Enero de 2005). Economía del género y economía feminista ¿conciliación o ruptura? *Revista Venezolana de la mujer*.

Pérez Orozco, A. (2006). Amenaza tormenta: La crisis de los cuidados y la Reorganización del sistema Económico. *Revista de economía crítica* N°5, 7-37.

www.ahotsak.com. (s.f.). *ahotsak proiektua*. Obtenido de www.ahotsak.com

www.euskadi.eus. (27 de 7 de 2020). *Eusko Jaurlaritza - Enpleguko eta gizarte politiketako saila*. Obtenido de <https://www.euskadi.eus/gizarte-zerbitzuak-mendekotasuna-mendekotasun-arriskua/web01-a2gizar/eu/>

www.pensium.es. (2020). <https://pensium.es/ley-de-dependencia-grados-y-prestaciones-economicas/>.

1. Eranskina: Elkarrizketarako galderak:

1. Kontatu pixka bat zure lan ibilbidea; ze lekutan egin duzun lan, zer zeregin betetzen eta zenbat denbora.
2. Parekidetasuna. Zure lankideetako zenbat dira gizonak eta zenbat emakumeak orokorrean? Eta gerokultoreen artean?
3. Lanaldia. Zenbat orduko lanaldia egiten duzu astean? Orokorrean zure lankideek zenbat ordutako lanaldia egiten dute?
4. Zenbat opor egun izaten dira eta nola erabakitzen dira egunak zuzendaritzarekin?
5. Zaintzaile ratioak. Zenbat egoiliarreko dago erizain bat/gerokultora bat?
6. Soldatak. Ze soldata jasotzen dute gerokultoreek? Nola eboluzionatu du soldata honek azken urteetan? Aintzinasunagatik gehigarriak?
7. Aldi batekotasuna. Ze motatako kontratuak izan dituzu urte hauetan? Ze motatako kontratuak dituzte orokorrean gaur egun gerokultoreek? Ze proportziotan banatzen direla uste duzu ehunekotan gerokultoreen artean? (kontratu motarekin langile finkoa/aldi baterako kontratua esan nahi dugu)
8. Ze eragin izan du COVID19ak zuen lan baldintzetan?
9. Azken urteetan aldaketarik izan alda langileen baldintzetan? Zein eta nolakoak?
10. Ba al zenuen koronabirusaren krisiaren aurretik izan zen erresidentzietako grebaren berri? Ze iritzi duzu honetaz?
11. Okurritzen al zaizu gaiaren inguruan, baldintza prekarioen inguruan, lan kargaren inguruan ala beste zerbaiten inguruan esanguratsua den zerbait?